



Portu Zaharreko XX. mendeko argazki asko batu ditu azken 5 urteotan Begoña Salazarrek. ▶22

Irailetik aurrera Erandion emango duten zirku ikastaroan izena emateko epea zabaldu dute. Horretaz berba egin dugu Illari Delgadogaz ▶15



hiruka

Uribe Kostako astekaria



21. zenbakia

2015eko
ekainaren 18tik
ekainaren 24ra arte



Suaren inguruan dantzan

Udako solstizioagaz batera, San Juan gaua ospatuko dute Uribe Kostako herri denek. ▶12



«ELA inoiz ez da izan EAJren sindikatua»

German Kortabarria Igartua ELAko arduradun ohiak sindikatu horren ibilbidearen gaineko liburua plazaratu du, Pamiela argitaletxeagaz.

1949an Oñatin jaioa, eta legelaria ikasketaz eta ofizioz, German Kortabarriak ibilbide luzea egin du ELAren arduretan, 1975ean, babes juridikorako lehen bulegoaren kargu egin

zenetik. 2007an utzi zituen sindikatuko kargu guztiak. Orain, *Gauzak horrela (ere) izan ziren. ELA (1976-2006)* izenburuko liburua kaleratu du Algortako bizilagunak. ▶16

HERRIZ HERRI URIBE KOSTA

Eskualdeak alkateak izendatu ditu

Udal hauteskundeetatik irten diren zinegotziek hautatu dituzte eskualdeko 10 alkateak (9 EAJkoak, eta bat EH Bildukoa).

Honakoak dira alkateak: Barrikan, Roberto Muñoz; Berangon, Anabel Landa; Erandion, Joseba Goikouria; Getxon, Imanol Landa; Gorlizen, Arantza Etxebarria; Leioan, Mari Carmen Urbieita; Lemoizen, Unai Andraka; Plentzian, David Crestelo; Sopelan, Gontzal Hermsilla; eta Urdulizen, Javier Bilbao.

Astrabuduan, Takolo Eguna egingo dute zapatuan, elkartearen 15. urtemuga poztasunez ospatzeko asmoz. ▶5

Leioan, barikutik eguaztenera ospatuko dituzte sanjuanak. Suak, Akelarrea eta erromeriak izango dira nagusi. ▶6

Barriak sei eguneko festak izango ditu, hilaren 19tik 24ra bitartean; Gosek kontzertua eskainiko du zapatuan. ▶8

Balkoitik Balkoira saioan, Andoni Egaña eta Fredi Paia bertsolariek kantatuko dute, barikuan, Algortan. ▶11

Getxo

Yoga topaketak egingo dituzte hilaren 19tik 21era bitartean

Udalerriko hogeita yoga-zentro inguruk topaketak antolatu dituzte yoga interesatzen zaien pertsonentzat, Yogaren Nazioarteko Eguna ospatzeko. Hilaren 19an, 20an eta 21ean izango dira topaketak. Urtero, ekainaren 21ean ospatzen da egun hori; aurrean, gainera, NBEk ofizial egin du eguna. Formatu ezberdineko hogeita hamar jardueragaz osatu dute programa: saio praktikoak, berbaldiak, musika eta antzerkia, besteak beste. Jardunaldiak hilaren 19an, barikuan, hasiko dira. Fadurako ekitaldien aretoan, 19:30ean, Ramayana antzezlan eskainiko du Sanatana Dharma eskolak. Hurrengo egunean, zapatuan, 08:00etan, yoga-saio bat egingo dute. Ondoren, 21:30era arte, lau aretotan aldi berean, formatu ezberdineko eta diziplinaren alderdi oso desberdinak jorratuko dituzte 25 proposamenek; besteak beste, honako gaien inguruko tailerrak eta hitzaldiak eskainiko dituzte: yoga eta osasuna, espiritualtasuna, meditazioa eta luzaketak. Horrez gainera, 20:00etan, Sarva taldeak mantren kontzertua eskainiko du ekitaldien aretoan. Azkenik, ekainaren 21ean, domeka, 10:30ean, Areetako Xake plazan, yoga-saioa eta dantza egingo dute, jardunaldiei amaiera emateko.

Barikuko antzezlanaren kenduta (5 euro ordaindu beharra dago), gainontzeko jarduerak guztiak doakoak eta libreak izango dira. ◀

info+: www.getxo.eus



Hamar postu finko batzen dira, eta gonbidatu berriak izaten dituzte azoka bakoitzean, hilabetearen arabera.

Trukerako herri-azoka

Hileko azken zapatuetan, ekoizleek euren produktuak eskaintzen dituzte trukean Itzubaltzetan.

Hil guztietako azken zapatuetan, Erromotruk herri-azoka hartzen du Itzubaltzeta/Romo auzoak. Antolatzailerik trukea sustatzen dute horrela, «kontsumitzaileen eta ekoizleen arteko harremanetan kapitalismoak ezartzen duen logika gaintzeko asmoagaz», eta gaineratu dutenez,

«janzteko, jateko eta erosketak egiteko moduak ere mundu hobe eta iraunkor baten aldeko konpromisoa markatzen duela uste dugu». Mota horretako azoka egiteko ideia Erromo Duin Kolektibotik dator, «borroka desberdinen gelditasuna ikusiz, euri zaparrada batean, bai kolektiboa bai herria dinamizatzeko gogoz, lantaldea osatzeko deialdia luzatu genuen, eta, geroztik, eguzkia zein euria egin, espazio publiko horren zati bat berreskuratzen dugu auzotar eta herritarrontzat». Hala, 2013ko udagoienera lantalde bat osatu, eta azaroaren 30erako antolatu zuten lehenengo azoka. Orduetik aurrera, hilabete bakoitzaren az-

kenengo zapatuan azoka egiten dute, Santa Eugenia plazan. Parte-hartzaile guztien artean antolatzen dituzte azokak, eta tokiko produktuak eta bitartekari bakoak sustatzen dituzte, eta, era berean, «ingurumenarekiko iraunkorrak direnak eta gizon-emakumeen esplotazioa ekiditen dutenak». Liburuak, bigarren eskuko arropa, barazkiak, ogia, sendabelarrez egindako botikak, eta eskulanak aurki daitezke besteak beste, azoketan. Produktuak trukean eskaintzen dituzte: «trukerako eta bestelako modu ez-monetarioetarako espazioa da» plaza, hala azaltzen dute. ◀

harremanetarako: erromotruk@gmail.com

www.beharsarea.net/Getxo

Beharsarea-k harremanetan jartzen ditu lana euskaraz egiteko jendea behar duena eta lana bilatu gura duen euskalduna

Orain, iragarki hauek dituzu Getxoko Beharsarean:

Zaintzaileak
Begiraleak
Merkataritza
Ostalaritza
Eskola partikularrak
Industria
Bestelakoak

Haur zaintzailea behar dugu
 Nork: Javier eta Patricia
 Lanpostua eskatzeko erantzun www.beharsarea.net/Getxo-n

Zaintzaileak
Begiraleak
Merkataritza
Ostalaritza
Eskola partikularrak
Industria
Bestelakoak

Zerbitzari euskaldunak behar ditugu
 Nork: Burdinola eta Satistegi tabernek
 Lanpostua eskatzeko erantzun www.beharsarea.net/Getxo-n

www.beharsarea.net bide erraza eta zuzena Interneten

Jendea behar dut
Necesito personal

Lana behar dut
Necesito trabajo

beharsarea
Getxon lana euskaraz

egizu.eus

EUSKARA BIZI

Getxo
bizi ez dago

Getxo

Ereagaz gozatzeko

Uztailean eta abuztuan aukera egongo da hainbat jarduera egiteko, barbarako, paddle-surfa.

Uda sasoiari, Ereaga hondartzako giroa dinamizatzeko, kirol eta aisialdi jardueren osasungarriak prestatu dituzte. Hala, askotariko kirol-campusak egongo dira umeentzat, eta pilates, aerobic, paddle-surf eta uretan trebatzeko ikastaroak, berriz, adin guztiarentzat. Horietakoren batean parte hartu gura duenak hauetariko batera jo dezake: sorosleen postuaren aurrean egongo den karpa, edota turismo-bulego zaharra zegoen berdegunean jarritako informazio-guneak. Umeentzako kirol-campusak, uztailean eta abuztuan eskainiko dituzte,

info+: www.getxoiv.com

astelehenetik barikura, goizez. Izena eman daiteke aste osorako, egun batarako, edo orduka. Adin guztiei zuzendutako jarduerari dagokienez, uztailean eta abuztuan emango dituzte pilates klaseak, eguenetan, 09:30etik

10:30era; eta aerobic-ekoak, barikue-tan, 09:30etik 10:30era. Ikastaro horien prezioa 3 eurokoa izango da saioko. Uretan trebatzeko klaseak ere emango dituzte, uztailean zana eta 16an eta abuztuaren 6an eta 26an, doan. ◀

Getxoko balkoiak eta leihoak edertzeko lehiaketa egingo dute

Udalerraren «ingurumen eta estetika kalitatea hobetzeko ekarpena» egite aldera, balkoien eta leihoen apainketa lehiaketa antolatu du Getxoko Udalak bigarren urtez, Enviser, ingurumen-zerbitzuak eta Grupo Campezo partaide dituen Getxoko Lorezaintza ABEEn babesagaz. Lehiaketan parte hartu nahi duenak hilaren 25era arte izango du izena emateko aukera. Lehenengo saria 250 eurokoa izango da, eta bigarrena, 150 eurokoa, lorezaintza produktuetan. Epaimahaiak uztailean lehenengo astean baloratuko ditu balkoi eta leihoak. Kontuan izango dituzte ondorengoak: konposizioaren originaltasuna eta sormena, apainketa-kalitatea, multzoaren harmonia, zailtasuna, iraunkortasuna, eta loreak ez diren material osagarriak zelan erabili dituzten. ◀

info+: www.getxo.eus

XXXIX GETXO JAZZ

UZTAILA
1-5
JULIO
2015

- 1
ASTEAZKENA
MIÉRCOLES
TALDE LEHIAKETA
CONCURSO DE GRUPOS:
FEDERICO NATHAN QUINTET
AVISHAI COHEN "TRIVENI"
- 2
OSTEGUNA
JUEVES
TALDE LEHIAKETA
CONCURSO DE GRUPOS:
MACIEK WOJCIESZUK QUINTET
NETWORK
JORDAN-LIBERSKI-MOFFETT-WATTS
- 3
OSTRALA
VIERNES
TALDE LEHIAKETA
CONCURSO DE GRUPOS:
GRZEGORZ WLODARCZYK QUINTET
JOE LOVANO QUARTET
- 4
LARUNBATA
SÁBADO
TALDE LEHIAKETA
CONCURSO DE GRUPOS:
EYM TRIO
THE STANLEY CLARKE BAND
- 5
IGANDEA
DOMINGO
TALDE LEHIAKETA IRABAZLEA
GANADOR DEL CONCURSO DE GRUPOS
MADELEINE PEYROUX



BIOTZ ALAI PLAZA
ALGORTA 21:00

SARRERA SALMENTA VENTA DE ENTRADAS
944 914 080
Getxoko Kultur Etxea (Villamonte, A8)




944 914 080 • www.getxo.eus • kulturetxea@getxo.eus

Antolatzaileak Organizadores



Babesleak Patrocinadores

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

EL CORREO

Laguntzaileak Colaboradores



Getxo

Zer egingo zenuke Algortako kuartelagaz?

Algortatik Hanka taldeak Guardia Zibilaren kuartelagaz zer egin beharko litzatekeen itaundu gura dio herriari; hala, galdeketa sinbolikoa egingo dute hilaren 20an.



Proposamenak ezagutarazteko panela ipini dute Algortako hainbat plazatan.

Zer egingo zenuke gaur Guardia Zibilaren kuartelak hartzen duen espazioan?; horixe da Algortatik Hanka taldeak herri-tarrei proposatutako galdera. Euskal Herrian, eta, zehazki, Algortan «indar polizial errepresiboak» kanporatzeko mugimendu irekiak «eztabaida piztea» gura du, «jendea motibatzeko eta konturatzeko benetan ez dugula Guardia Zibila behar». Hala, Guardia Zibilak Euskal Herritik eta Algortatik alde eginez gero, kuartela okupatzen duen espazioan zer egin gura duten galdegin diete azken hilabeteotan udalerriko auzokideei eta eragileei. Jasotako ideia guztietatik, lau aukeratu dituzte, eta horietatik zein egin beharko litzatekeen aukeratzeko herri-bozketa egingo dute hilaren 20an, zapatuan, goizeko 11:00etatik arrastiko 08:00etara, San Nikolas plazan. Herri-bozketan aukeratzeko dauden lau proposamenak honakoak dira: herri-antzokia eta kioskodun plaza; herriko frontoi publikoa; gazteentzako etxebizitza sozialak; eta Uribe Kostako memoriaren

museoa. Proposamenak ezagutarazteko hainbat bide erabili dituzte Algortatik Hanka kideek, berbarako: sare sozialak eta herriko plazetan jarritako panela. Proposamen bakoitza «justifikatuta» dago: zergatik egin beharko litzatekeen, eta proiektuaren ezaugarriak zehaztuta daude. Galdeketa egunean, goizeko 10:00etan diana pasatuko dute Algortan zehar, «herria esnatzeko eta bozketaren berri emateko», jakinarazi dutenez. Ondoren, 11:00etan hautetsontziak zabaldu, eta arrastiko 08:00ak arte hurbildu ahal izango da norberak gustuko duen proposamenaren alde bozkatzeko. Bitartean, 12:00ak aldera umeentzako tailerrak egingo dituzte, eta kontzerturen bat ere egongo da, arrastiko 06:00etan. Galdeketa helburua «Guardia Zibilaren kuartelaren presentziak suposatzen duen egoera anormala azaleraztea» dela diote; era berean, dinamika zabaldu eta «kuartelaren kontrako borroka dinamikak eta esparruak» eskaini nahi dituzte. ◀

twitter: @AlgortatikHanka

Gobela ibaian, aldatzen hasi dira Zumardia kaleko zubia

Avanzada eta Leioako zubiaren arteko tartean, metalezko zutoin-oholak ipintzeko lanen lehenengo fasea amaitu berri du Uraren Euskal Agentziak. Horren ostean, hurrengo faseari ekingo diote. Hala, Neguri auzoko Zumardia kaleko pasabidea eraisten hasiko dira; hartara, ondoko parkerainoko tartean ere jarriko dituzte zutoin-oholak.



Pasabide horren ordezkatzeko egiteko hiru hilabete beharko dituztela iragarri du Uraren Euskal Agentziak. Bitartean, ibaiaren sekzio hidraulikoa hobetzen jarraituko du agentziak, Avanzadako zubitik Leioako zubiraino. Uraren Euskal Agentziak azaldu duenez, lan horien helburua

da Gobela ibaiaren ur-hustuketarako ahalmena «nabarmen» handitzea, Getxoko Makaleta inguruan, Avanzadatik Leioako zubirainoko tarteko 362 metro horietan, hain zuzen ere.

Datorren urteko udarako lan horiek guztiak amaituta izango dituztela aurreikusi dute arduradunek. ◀

Imanol Landak hartu du alkatetza, hirugarrenez

Hilaren 13an, zapatuan, osatu zuten Getxoko hurrengo lau urteetarako Udalbatza. Era berean, Imanol Landa izango da alkate, hirugarrenez, EAJren 9 zinegotzien eta PSE-EEren 2 zinegotzien aldeko botoakaz. Arantza Gutierrez EH Bilduko hautagaiak eta Iñaki Gamero PPko hautagaiak 4 eta 5 boto jaso zituzten, hurrenez hurren. GUKek eta Ciudadanosok ez zuten hautagairik aurkeztu, eta talde horietako zinegotziek boto zuria eman zuten. Hartara, Landak domina eta makila jaso zituen; ondoren, diskurtsoa irakurri zien aretora bertaratutakoei. Diskurtsoan, bere helburu nagusia «bizilagun guztiak zerbitzatzeko, bazterkerarik gabe, eta denontzako bizi-



baldintza hobekien lortzeko» lan egitea dela adierazi zuen.

Zinegotzien zina egiteko unean, koalizio abertzaleko zerrendaburuak adierazi zuen Getxo «ezkerretik eraiki nahi duten beste talde eta eragileekin batera, herri honen alde egiten» jarraituko dutela. ◀

UDAKO IKASTAROAK 2015

UDAN ERE EUSKAHALDUNDU ZAITEZ!

www.aek.eus

EUSKALTEGIAK

2 ASTEKOBARNETEGIAK

FAMILIA BARNETEGIAK

BARNETEGI IBILTARIAK

673 200 100 - 946 464 000

aek

URIBE KOSTA

UDAKO IKASTARO TRINKOAK ETA BARNETEGIAK

Leioa - 944646063
lamia@aek.org

Getxo - 944304734
lauaxeta@aek.org

Plentzia - 946773607
jentilbaso@aek.org

Gorliz - 946773646
jentilbaso@aek.org

www.aek.eus/blogak/uribekosta
www.facebook.com/uribekostako.aek

PINTXO POTE OSTEGUNETAN

12:00 ETATIK
15:00ak ARTE

Portu Zaharra Bar

TABERNA Unai JATETXEA

ALGORTAKO ETORBIDEA, 96
48991 GETXO (BIZKAIA)
TELF. 944661661
TABERNAUNAI@HOTMAIL.COM

TABERNA Ekin JATETXEA

CALLE BOLLUE Nº4 TEL: 946080462

GOIZEAN

“Gozoki eta prentsa, gubi denik ez prentsa”

Prentsa - Fritu lehorrak - Aldizkariak - Lixareriak

Orduña Mendatea 1
Tf. 94 430 22 13
GETXO

Erandoio

Takolo Eguna badator

Takolos irrati-klubak

15 urte bete zituen, pasa den maiatzean. Baina zapatura arte atzeratu dute ospakizuna, hauteskundeak zirela-eta.

Jon Fano elkarteko kideak aitortu duenez, maiatzean bete ziren 15 urte Takolos irrati-kluba ofizialki jaio zenetik; «baina hauteskundeetan, agintariak inolako baimenik ematen ez dutenez eta ekainean argazkilaritza maratonia egin ohi dugunez, dena batu dugu».

Irrati-kluba 2000. urtean abiatu arren, bere lehenengo urratsak 1999an egin zituen, Astrabuduko eta Bizkaiko hainbat irratizalaren ekimenez. Hain zuzen ere, hasiera hartako kuadrilla baten izenetik dator Takolos izendapena. Garai hartan, Takolosek bazkideak barreiatuta zituen munduan zehar, Argentina eta Italia artean: Mexiko, Brasil, AEB, Kolonbia, Venezuela, Belgika, Frantzia, Herrialde Katalanak, Espainia eta, jakina, Euskal Herrian topa zitezkeen, irrati bidez.

«Hasiera izugarri hura» bideratzeko, irrati-kluba kultur elkartzat erregistratzea erabaki zuten 2000. urtean. Helburu nagusia «gure Astrabudua maitea ezagutaraztea» izan zen. Horretarako, «gure esku dauden tresna legal denak erabiltzea» adostu zuten. Hurrengo bost urteetan, Takolosek «urrezko aroa» bizi izan zuen, mun-



Elkartasun ekimenak ere jorratzen ditu Takolos irrati-klubak. © TAKOLOS

duan zehar bazkideak eta kontaktuak zituen, eta Astrabudua nazioartean ezaguna zen. Zoritxarrez, 2006an irrati-zaletasunak beheranzko joerari ekin zion, teknologia berrien eraginez.

Takolos ez zen salbuespena izan, eta hainbat jarduerak kale egin ostean, 2007an elkartea itxi ez, baina berresmatu zuten, ez ohiko batzarrean. Orduan, ekin zioten Astrabuduaren alde diharduten beste eragileakaz elkarlanean jarduteari eta euren ekimenak babesteari. 2009ko amaieran, oster, argazkilari-taldea sortu zuten, beti ere betiko helburuagaz. Gaur egun, Astrabuduko Pirata irradian, argazkilaritza-kontuetan, putxerakaz eta «auzoko edozein saltsatan» dabilza Takolosekoak, Fanok dioenez. ◀

Takolo Egunaren egitaraua

Ekainak 20, zapatua

11:00 Irteera Astrabudutik, trenez. Ibilbidea: Etxegorri 7, Madaripe, Mezo, Txakurzulo eta Etxegorri. Doakoa. Lekuak bete arte.

14:00 Tren-bidaiaren amaiera, Etxegorriin.

17:00 IV. Argazkilaritza Maratonia: kultur eta argazkilaritza irteera Erandiotik, trenez. Ibilbidea: Etxegorri 7, Lutzana, Altxaga, Arriaga, Eran diogoikoa, Akarlanda, Goierri eta buelta Astrabuduko Etxegorriara. Lekuak bete arte.

19:00 IV. Argazkilaritza Maratoniaren amaiera.

19:30 Dantzaldia eta umeentzako animazioa, Lastima Teatrogaz, Mendiguren plazan.

info+: takolos.org

Lehiakortasuna sustatzeko tailerrak martxan daude

Erandoioko Behargintzak udalerriko Enpresen lehiakortasuna hobetzeko asmoz, tailer batzuk antolatu ditu ekainean eta uztailaren hasierarako. EAeko Garapen Agentzien Elkartearen eta Bizkaiko beste garapen agentzien laguntza izan dute ikastaro horiek egiteko. Tailer denak doakoak dira, eta ekainaren 22tik aurrera, horietako hiru Behargintzan egingo dira: Altzagako Bekoa ikastetxean. Gaiak honakoak dira: plan komertziala zelan egin den, lehiakideengandik nor bere burua zelan ezberdindu dezakeen, eta Canvas negozio-metodologia. ◀

info+: 944 175 616 / enplegua@erandioko-udala.net

Josetxu Zubizarreta eguenean omenduko dute Astrabudian

Iaz zendu zen Josetxu Zubizarreta Rodríguez de la Flor Astrabuduko institutuko langilea, eta ikastetxean bertan gorazarre egingo diote, eguenean, hilak 18. Hainbat ikasle ohik prestatu dute omenaldia, eta 15:30ean abiatuko da. Bertaratzeko gonbitea egin diete ikasle, ikasle ohi, irakasle eta Zubizarretaren lagun guztiei. Besteak beste, ping-pong txapelketaren finalak, saskibaloijaurtiketa librean lehiaketa, futbol txapelketako finala eta sari-emanaldia izango dira, Josetxuren omenaldi-ekitaldia 17:30ean hasi aurretik. Josetxu Zubizarreta institutuko eskola kiroletako ekimenez zein *Astrako Times* aldizkariar arduratzen zen, beste gauza askoren artean. ◀

Iker Rodrigo epaitu dute Auzitegi Nazionalean

Pasa den martitzenean, Iker Rodrigo Basterretxea Bizkaiko Sorturen koordinatzaileorde lutzanarra epaitu zuten Espainiako Auzitegi Nazionalean. Teresa Sandoval fiskalak «terrorismoa goratzea» leporatu zion, eta 18 hilabeteko espetxe zigorra eta 12 urteko inhabilitazioa eskatu zituen bere aurka. Horren aurrean, 120 erandioztarrek Rodrigo libre uzteko aldarrikatu zuten Altxagan. Fiskalaren ustez, 2013ko apirilaren 12an Javier Lopez Peña «Thierry» ETako burukidea zenaren gorpuari Loiun egindako harreara planifikatu, sare sozialetan iragarri eta ahoz koordinatu zuten Rodrigok, ETaren aldeko oihuak botatzeaz gainera. Rodrigo 3 egun geroago atxilo-



«Jazarpen politikoa» salatu du Rodrigok.

tu zuten Guardia Zibilak, Eloy Velasco epailearen esku uzteko, epaiketaren zain aske utzi zuena. Lutzanarrak akusazioak ezeztatu izan ditu eta bere atxiloteta Sortu, Ernai eta Herrira illegalizatzeko kanpaina dela salatu du. ◀

Goikouriak hirugarrenez heldu dio alkatearen aginte-makilari

Joseba Goikouria hirugarrenez da Erandioko alkatea. Horrela erabaki zuten zapatuan bertako Udalbatzak, EAJk, Ganemosek eta EH Bilduk norberak bere zerrenda bozkatuta. Gauzak horrela, 9 boto izan zituen Goikouriak, 4 Rafael Vaquerok eta 3 Ana Crespok. Lau zinegotzi sozialistek eta Alaia Eguiluz hautetsi popular bakkarrak boto zuria eman zuten.

Joseba Goikouriak bozketan EAJk izan ez zuen gehiengo egonkorra (11 zinegotzi) errazteko eskatu zien gairantzeko alderdiei. PPGaz izan ezik, edozeineguz osa lezake, «erandioztarren alde» egiteko. Gogoratu zuenez, Erandioko EAJk eskarmentua du HBgaz zein PSE-EEgaz hitzarmenak sina-



Joseba Goikouria aginte-makilagaz

tzen eta ez zuen baztertu «beste indar politikoren bategaz» egitea, Ganemosi zuzenduta. Halere, ikusi beharko da EAJ eta PSE-EEren arteko EAE mailako udal eta foru hitzarmenak Erandion zer ibilbide izango duen. ◀



Begire nago begire

JOSU ESNAOLA ARANGUREN
Helduen euskalduntzean irakasle

Gure esku dago, bai, baina egunero

Ekaina aurrera doa, eta udako solstizioa ate joka daukagu: ekainaren 21ean gertatuko da, arratsaldeko sei eta erdiak aldera. Gutariko asko eta asko San Mames Barrian izango gara, eta ez daukat inolako zalantzarik, leporaino beteko dugu.

Egun horretan geure buruak inoiz baino euskaldunago agertu nahiko ditugu, eta euskara guztion ahotan ez bada ere, gehienon ahotan ibiliko dela pentsatu nahi dut. Halakoetan horrela jokatzeko baitugu; munduak ikus dezala hemen beste hizkuntza bat badela, munduak ikus dezala hemen beste herri bat badela.

Hori, berez, ez dago txarto; baina askotan pentsatu izan dut ez ote den nabarmenkeria edo erakuskeria hutsa, ez ote den itxurakeria hutsa. Hau da, ekainaren 21ean hasi eta amaituko den kontua, 22an geure ohiko jarreretara itzuliko ez ote garen: euskaraz umeakaz eta txakurkaz, baina ez lagunartean edota bikotekideagaz; lehenengo hitza euskaraz, baina ondorengo milaka eta milaka guztiak espainol hutsean; euskara bihotzean, baina espainola ezpain-belarrietan.

Gure esku dago zer garen eta zer izan nahi dugun: egun bateko indioilar harropuzta ala egunero txindurria; orbela legez ohikokeriaren haize-lasterrean dabilena ala kosta ahala kosta eta kontrakarrean ere bere bidea erabaki eta horretan aurrera egin gura duena; inoren morroi ala nor bere buruaren jabe.

Gure esku dago, bai, baina egunero eta unean-unean. Erabakia geurea da, neurea, zeurea. Hizkuntza kontuetan ezeze, bizitzako beste arloetan ere: auskalo nongo tomateak edo piperrak erosi ala bertoko baserriarrenak; saltoki-gunera joan ala herriko dendetan utzi dirua; autoa hartu ala garraio publikoa erabili...

Gure esku ez dagoena: eguraldia. Ea 21ean alde dugun. ◀

Leioa



Tradizio bihurtu da txosna-gunean Mendibile gaztetxean orain dela 17 urte abiatutako akelarrea.

Sanjuanak heldu dira

Barikutik eguaztenera, festak izango dira Leioan, San Juan herri-zaindariaren edo udako solstizioaren omenez.

Aurretik herria jai-giroan bizi bada ere, barikuan ekingo diete Leioako jaiak. Azken urteotako ohiturari jarraituz, Mari Pepa eta Arlote izango dira txupina botatzeko ardura-dunak. Aurten, 50 urte bete dituen Betiko ikastolari omenaldi txikia egingo

diote: bertako Larraitx Alava ikasleak eta Alfon Diez gurasoak zabalduko dituzte jaiak. Ostean, kuadrillek jaitserari ekingo diote. Bertan ez da faltako Betiko-ko neska-mutilen batukada. Jaietan barrena, kuadrillek hamaika proba izango dute, lehia bizian. ◀

Mari Carmen Urbietta alkate izendatu dute EAJren bozez

Udal hauteskundeetan EAJk lortutako 9 ordezkarien botoak nahikoak izan ziren pasa den zapatuan Mari Carmen Urbietta egungo alkateak berriro ere Leioako aginte-makila hartzeko. Esan daiteke leioaztarrek babes eman dioten lehenengo aldia dela. Izan ere, joan den agintaldiaren erdialdean, Eneko Arruebarrenak Metro Bilbaoko zuzendari izatea onartu eta gero, izendatu zuten Leioako alkate. Hain zuzen ere, zapatuan gogoan izandako pertsonen artean, Arruebarrena bera aipatu zuen Urbietak, «bere taldeko kide izateko aukera eman» ziolako. Beste alderdiei dagokienez, pasa den astean iragarritako hitzarmenari esker, PSE-EEk (3 zinegotzi) zuri boz-



EAJk 5.202 boto lortu ditu.

katzea baino ez zuen egin behar izan, EAJk alkatetza lor zezan; eta horrela egin zuen. PPko 2 zinegotziek ere zuriz bozkatu zuten, eta ESNatu Leioak eta EH Bilduk nork bere hautagaitza sostengatu zuten. ◀

Egitarau aukeratua

Ekainak 19, barikua

19:30 Pregoia eta txupina Mari Pepa eta Arlote gaz udaletxean, eta kuadrillen jaitsera.

21:00 Txupina, txosnetan.

23:00 Kontzertua: DJ Bull, txosnetan.

23:00 Erromeria: Babel Covers, bulebarrean.

23:00 Kontzertua: Demode Quartet, Aldapan.

Ekainak 20, zapatua

10:30 Kuadrillen lehiaketak, bulebarrean.

15:00 Kuadrillen bazkaria, bulebarrean.

17:30 Udal Eskupilota Eskolako finalak eta izar gazteen partidak, Sakonetan.

18:00 Leioa Urban Eguna: breakdance, slackline, zirkua, graffiti..., Aldapan.

18:30 Kuadrillen playbackak, bulebarrean.

22:00 Reggae Sound System Party, Aldapan.

23:00 Kontzertua: Zizka Mizka, Enkore eta Skakeitan, txosnetan.

00:30 Kontzertua: DJ Galker, bulebarrean.

Ekainak 21, domeka

11:00 Meza, eta ohorezko aurreksua, elizan.

12:00 Kuadrillen sokatira txapelketa, Udon doko bulebarrean.

17:00 Kuadrillen erlojupekoa, Aldapabarrean.

18:30 Dantza erakustaldia eta erromeria Gure Ohiturak-egaz, Errekalde plazan.

22:00 Erromeria: Akerbeltz, bulebarrean.

23:00 Kontzertua: Kaotiko, The Lasai eta Altxatu, txosnetan.

Ekainak 22, astelehena

18:00 Magik Clown pailazoak, txosnetan.

18:30 Kuadrillen azeriaren ehiza, Pinosolon eta Ikea Barri plazan.

20:00 Bertsolariak: Bartra, Egaña, Iturriaga eta Beñat Vidal, bulebarrean.

Ekainak 23, martitena

20:00 Kirolaren Gala: harri-jasotzaileak eta aizkolariak, bulebarrean.

22:00 Solstizioa ikuskizuna, bulebarrean.

22:30 Erromeria: Garilak 26, txosnetan.

23:15 San Juan sua, udaletxean.

00:00 Su artifizialak, udaletxean.

00:00 Akelarrea, txosnetan.

22:30 Erromeria: Trikizio, bulebarrean.

Ekainak 24, eguaztena

12:00 Meza, eta ohorezko aurreksua, elizan.

19:00 Zirkua Leioan ikuskizuna, Ikea Barrin.



Artaza auzoa 84 (LEIOA)
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

BETIKO
IKASTOLA

GORA LEIOAKO JAIK!

RENAULT
Passion for life

LEIOA BERRI

guarderia. txanogorritxu
www.guarderiatxanogorritxu.com

Sabino Arana 22/26 Leioa **ONDO PASA JAIETAN!**

KVRKYDI HERRIKO TABERNA

EUSKAL HERRIA

Sabino Arana, 82 behea - ☎ 94 480 26 55
48940 LEIOA

URONDO
Tabako denda - Estanco

Sabino Arana 67, Leioa.
Tel.: 94.464.92.33

ONDO PASA JAIETAN!


Zure herriko jaietan iragar zaitez!

944 911 337
publi@hiruka.eus

Sopela

Kiko Veneno, Sopela Kosta Fest jaialdian

Irailaren 25ean eta 26an, zortzi musika-talde igoko dira Sopela Kosta Fest jaialdiko oholtzara, besteak beste: Kiko Veneno, Tania de Sousa, Gildas eta The Uski's.



Udaletxeko plazan izango dira kontzertuak.

Dagoeneko osatu dute Sopela Kosta Fest jaialdiko kontzertuen eskaintza, irailaren 25era-ko eta 26rako. Naturaren eta surfaren inguruan eraikitako jaialdian, zortzi musika-talde igoko dira oholtzara, iazko edizioan legez, udaletxe aurreko plazan eta 21:00etatik aurrera.

Jaialdia hilaren 23tik 27ra artean egingo bada ere, kontzertuak bari-kuan eta zapatuan izango dira.

Barikuan, emakumeen taldeek joko dute: Gildas (Uribe Kosta), Libe (Euskal Herria), Baskery (Suedia), eta Tania de Sousa (Euskal Herria). Gildas uribekostar taldeak folk-pop-rock soinuak ekarriko ditu. Bere erritmoak, «ondo markatuak eta eramanak, kutsakor bihurtzen dira, betiere soinuaren instrumentazio bitxiarekin eta eszenaratzeko oso teatralarekin». Libe Garcia de Cortazarrek, berriz, Neubat taldean hasi zuen ibilbidea, eta bere abesti propioak landu ditu azken urteotan. Baskery Suediako bluegrass alternatiboko banda gazteak erritmo bizi-bizia ekarriko du, eta Tania de Sousak zuzeneko boteretsua eskainiko du.

Bestalde, zapatuan ere lau taldek bisitatuko dute Sopela: Audience (Euskal Herria), The Uski's (Euskal Herria), Kiko Veneno (Andaluzia) eta The Agapornis (Andaluzia).

Audience AEBko folk-rock artista handien zorduna da, tradizioekiko errespetuarekin baina abangoardiei konektaturik daude, eta Euskal Herriko banda interesgarrien artean dago, sustraietako rockari dagokionez. The Uski's taldeak proposamen freskoa eta berezia dakar, bizkaierazko abestiakaz. The Agapornisen erritmo gartsuak, berriz, hurbil daude egungo deep funketik, baina ez dituzte genero horretako klasikoak ahazten. Azkenik, Kiko Veneno musikari ezaguna izango da gurean. Flamenko, pop eta rocka modu berritzailean bateratu dituzten artista aitzindarietako bat da Veneno. Camaron de la Islarekin edo Veneno taldeagaz jo du. Espainiako Hezkuntza eta Kultura Ministerioak Egungo Musiken Sari Nazionala eman zion, «soinu mestizoak bultzatzeko egindako lanagatik».

info +: www.sopelakostafest.com

Irailetik aurrera, Mara Mara umeentzako gunea, Sopelan

Umeentzako eta helduentzako ikaste-gunea eskainiko du Mara Mara familia-elkarteak irailaren 7tik aurrera, Sopelan. Daborduko antzeko gunek martxan dauzka Berangon eta Romon, eta Sopelan, berriz, udagoienean abiatuko du Mara Mara Txiki ekimena. Umeek jolas libre eta autonomia egiteko aukera dute gune horretan, eta gurasoek ere parte har dezakete.

Azaldu dutenez, Mara Mara elkar-tekak beti bilatzen ditu eremu aproposak bere ekimenak garatu ahal izateko, eta Sopelan, eremu natural egokia topatu du: baserri bateko beheko solairuan, handia eta belardiagaz. Emi

Tickler-en filosofiari jarraituz, elkar-terko lan-taldeko partaideen laguntza izango dute umeek eta gurasoek, Mara Mara Txiki gunean. Eremu desberdinetan banatuko da gunea, eta umeek erabakiko dute non egon gura duten: idazketa, kalkulua, eremu sinbolikoa, eta abar. Goizeko 09:00etatik 16:30era zabalduko dute, eta arrastietan eta aste akabuetan ere egingo dituzte ekintzak.

Interesa daukaten gurasoak ekainaren 30ean hurbil daitezke Mara Mara gunera, jardunaldi irekia egingo dute eta.

info +: www.mara-mara.com

Harremanetarako: 656 771 764 / info@mara-mara.com

Gontzal Hermosilla Ramos da Sopelako alkate berria

Erainaren 13an udal berriak osatu eziren, baita Sopelan ere. Alkateak hautatu zituzten, udalbatzak osatzea-gaz batera, eta hurrengo lau urteotan, Gontzal Hermosilla Ramos jeltzalea izango da Sopelako alkatea, Saioa Villanuevaren lekua hartuz.

EAJ-PNVren hautagaiak zortzi bozka lortu zituen osoko bilkuran; EHBilduren hautagaiak, sei; Denok Batera taldearenak, bi, eta Ahora Sopela-Barrika Orain alderdikoak, bozka barrak. Guztira, 17 zinegotzik osatzen dute Sopelako udalbatza. Maiatzaren 24ko hauteskundearen ostean, honela daude banatuta: EAJk zazpi zinegotzi, EHBilduk sei, Denok Batera-k bi, eta



PSE-EEK eta Orain alderdiak, bana. Osoko bilkura amaitu baino lehen, herritarren alde egiteko asmoa adierazi zuen alkate berriak, baita «alderdi guztiekin lan egiteko konpromisoa» azaldu ere.

info +: www.sopela.eus

GetxoGas

Txartel hau aurkezten baduzu

%50eko deskontua izango duzu zure autoaren garbiketari

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

DIDAK HAMILTON
IDIOMAS
Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 SOPELA
TE: 94 676 30 12
info@didakhilton.com

Hurtzaindegitik batxilergora arteko eskaintza

Gatzarriñe bidea 47, Sopela
Tfnoa.: 94 676 02 66 / 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus
www.anderdeunaikastola.eus

ander deuna
I K A S T O L A

Barrika

San Juan suak argituko du Barrika, hilaren 19tik 24ra

Barrikoztarrek sei egun izango dituzte jai. Hilaren 20an, Gose taldeak eskainiko du kontzertua, eta hilaren 23an, sua isiotuko dute Deabru Beltzak taldeagaz.



Domekan, hilaren 21ean, Nekazaritza eta Artisautza azoka egingo dute.

Udako solstizioagaz, San Juan jaiak helduko dira Barrikara. Hala, hilaren 19tik 24ra bitartean, barrikoztarrek ekimen ugari gozatu ahal izango dute, gau eta egun. Barrikuan, itsaso oinarri hartuta, kalejira herrikoia egingo dute 19:30ean frontoitik abiatuta. Txupina 20:00etan bota, eta sardinakaz eta sagardoagaz ekingo diote festari. Iluntzean, disko-festa egingo dute. Hurrengo egunean, zapatuagaz, jai-giroa egongo da tabernen inguruan eta udaletxeko plazan. Umeentzako jolasak eta tortilla txapelketaz gainera, Barrika On Air Banda eta DJ lehiaketagaz alaituko dute udalerrria. Gau-gauean, 01:00ak aldera, Gose taldeak barrikoztarrek dantzari jarriko ditu. Domekan baserriarren jantziak jarriko dituzte soinean auzotarrek, eta XXV. Nekazaritza eta artisautza azokagaz emango diote hasiera egunari, 10:00etan. Ondoren, aukeran egongo dira sukalki txapelketa, bertsolariak, euskal dantzak, herri-kirolak eta musika-emanaldia. Hilaren 23an, martitzena, Thor magoak neska-mutilak txundituta utziko ditu, eta 22:30ean Deabru Beltzak konpainiagaz San Juan sua piztu baino lehen, Tai Xia eta txalapartagaz gozatu ahal izango dute bertaratutakoek. Eguaztenean, azkenik, agur esango diete jaiari. ◀

info+: www.barrika.eu

Egitaraua

Ekainak 19, barikua

19:30 Kalejira herrikoia, fanfarreagaz.
20:00 Txupina jaurti, eta pregoia irakurri.
21:30 Disko-festa.

Ekainak 20, zapatua

11:00 Familien arteko ginkana.
12:00 Bits-jai, eta ur puzgarriak.
13:00 II. Tortilla Txapelketa.
17:00 Familia osoarentzako disko-dantza.
19:00 Pailazoak.
20:00 Barrika On Air Banda, eta DJ lehiaketa.
01:00 Kontzertua, Gose taldeagaz.

Ekainak 21, domeka

11:00 XXXIV. Sukalki Txapelketa.
12:30 Bertsolariak.
13:30 Euskal dantzen erakustaldia.
17:00 Herri-kirolak.
19:00 ADI metodoaren erakustaldia eta klase irekia.
20:00 Kontzertua, The Black Sisters taldeagaz.

Ekainak 23, martitzena

19:00 Thor Magoa.
20:00 Tai Xi erakustaldia.
20:30 Txalaparta tailerra.
22:30 San Juan suaren ikuskizuna, Deabru Beltzak konpainiagaz.

Ekainak 24, eguaztena

11:00 Meza nagusia.
12:00 Abesbatzaren emanaldia.
14:00 Herri-bazkaria.
16:00 Dantzaldia, Socratesekin.



Jelkide ohi baten bozka jaso du Roberto Muñoz alkate berriak

Behar ez zuen arren, iBarrikako buru den Juan Jose Ezpeleta EAJko alkate ohiaren botoa jaso zuen Roberto Muñoz jelkideak, gehiengo osoa osatuz. Denera bost bozka izan zituen EAJk. EH Bilduk, ostera, Asier Garcia aurkeztu zuen hautagai, eta hiru boto jaso zituen; eta bere buruari eman zion botoa koalizio abertzaleko zinegotzi izandako Orain Barrikako Heri Lago-Urbe hautagaiak. Horrenbestez, EAJko Roberto Muñoz izango da Barrikako alkate berria hurrengo lau urteetan; alderdi bereko Jose Madariagari lekukoa hartuz.

IBarrikako Jose Ezpeletak nahiko zeukan zuri bozkatzeagaz, abstenitzeagaz edo bere buruari botoa emateagaz,



Ibarrikak Muñozen alde bozkatu zuen.

hautagai jelkideak aginte-makila harrezan; baina haren alde bozkatzea erabaki zuen. Eskualdeko gainerako udalerrietan legez, hilaren 13an egin zuten udalbatza berria eratzeko osoko bilkura; Barrikan, goizeko 10:00etan. ◀

Plentzia

EH Bilduko David Crestelok aginduko du Plentzian

Zortzi urtez Plentziako alkate izandako Isamari Zarauza independentearen eskutik jaso zuen aginte-makila hilaren 13an, zapatua, David Crestelo EH Bilduren hautagaiak. Koalizio abertzaleak (4 zinegotzi) eta Plentziako Independenteeak (2 zinegotzi) sei boto batu zituzten, EAJk lortutako bost zinegotzien botoen kontra.

Jelkideak haserre agertu ziren gertatutakoagaz: «alderdi bozkatuena izan ginen, eta alkatetza guk hartzea zegokiola uste genuen», adierazi zuen Elixabete Uribarri EAJren ordezkariak. «Hala ere, zenbakiak zenbaki dira, eta egoera onartu behar dugu», gaineratu



Independenteeak EH Bilduren alde agertu ziren.

zuen. Alkate berriak «arduraz eta ohore handiz» jaso zuen aginte-makila: «11 zinegotzi gara, eta herritar denentzat egingo dugu lan». ◀



#E21UK traola erabiliko dugu.

Eguneko irudiak argazki-galeria osatuko dugu, beraz bidali zeureak ere: foto@hiruka.eus

Berango

Berangoko alkatetzan jarraituko du Anabel Landak

Aurreko legealdian legez, Anabel Landak izango da Berangoko alkatea datozen lau urteotan. EAJko zerrendaburuak 6 boto lortu zituen: 5, EAJrenak, eta beste 1, PSE-EErena. EH Bildu, Denok Batera eta PPko zinegotziek, aldiz, bakoitzaren hautagaiari eman zioten botoa. Koalizio abertzaleak 4 boto batu zituen; Denok Batera-ko hautagaiak, bi, eta popularrak, berriz, bakarra. Hasiara batean, hilaren 13ko osoko bilkura eguerdiko 13:30ean egitea aurreikusita bazegoen ere, goizeko 09:00etan egitea erabaki zuten azkenenengo momentuan. Izan ere, Podemos-eko zirkuluak deitua



PSE-EEren babesak jaso zuen Landak

zuen Denok Batera-ko bi zinegotzien dimisioa eskatzeko kontzentrazioa, 13:30ean. Osoko bilkura aurreratu zuten, hori galarazteko. ◀

Udal Musika Eskolako emanaldia hilaren 22an Berango Antzokian

Urtero legez, ikasturte amaierako entzunaldia eskainiko du Berangoko Udal Musika Eskolak. Hala, hilaren 22an, astelehena, musika eskolako ikasleek aukera izango dute 2014-2015 ikasturtean ikasitako guztia erakusteko bertaratutako publiko guztiaren aurrean.

Berango Antzokian egingo dute entzunaldia; hortaz, musikari gazteen musikagaz gozatu gura duenak arrastiko 06:30ean hurbildu beharko du bertara. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, jarduera doakoa izango da bertaratutako guztientzat. ◀

info+: www.berango.net

Borja Gutierrez «Bakerito» aske utziko dute hilaren 24an

Hilaren 24an, eguaztenagaz, Borja Gutierrez Elordui «Bakerito» preso politiko berangoztarrak askatasuna berreskuratuko du, Frantziak ezarritako espetxe zigorra bete ostean. «Bakerito» 2006ko abenduan atxilotu zuten Frantziako hegoaldeko Cantal departamenduko La Bessertete herrian; beragaz batera, Eneko Bilbao eta Zorion Salsamendi atzeman zituzten, ETako kideak zirelakoan. 2011n, Frantziako Auzitegiak sei urteko espetxe zigorra ezarri zion berangoztarrari; Fiskaltzak hamar urteko zigorra eskatu zuten. Beste biei bost urteko espetxe zigorra ezarri zieten. ◀

Lemoiz

Unai Andrakak gehiengo osoagaz hartu du agintea

Unai Andraka EAJren zerrendaburuak hartu zuen hilaren 13an, zapatua, Lemoizeko alkatetzan, gehiengo osoagaz. Hautagai jeltzaleak bere kideen aldeko sei botoak lortu zituen; EH Bilduko hiru zinegotziek, ostera, Tasio Olabarrieta bere hautagaiaren alde bozkatu zuten. Alkatea aukeratu ostean, Gabriela Frances koalizio abertzaleko zinegotziak hartu zuen hitza; Lemoizentzat lan egiteko grina erakutsi zuen, «intenzio onenarekin». Era berean, aurten udal talde «potentea» lortu dutela azaldu zuen; hala, oposizioan «modu eraikitzailean eta errespetu osoz» lan egingo dutela



Lemoizeko alkate jeltzalea du.

esan zuen. Halaber, osoko bilkurak lan ordutegietatik kanpo egiteko eskatu zuen, «jendea etorri, eta parte hartu ahal izateko». ◀

Gorliz

Arantza Etxebarriak eutsi dio Gorlizko alkatetzari

Arantza Etxebarria izango da beste lau urtez Gorlizko alkatea. Jelkideak bere alderdiko sei botoak jaso zituen, hilaren 13an, zapatua, eguerdian egindako udal bilkuran. Nahikoa izan zen aginte-makila jasotzeko, zerrenda bozkatueneko alkategaia delako; Gorlizko Independenteen Taldeak eta EH Bilduk bakoitzaren hautagaiaren alde bozkatu zuten. Gauzak horrela, Mari Carmen Basabek 4 boto lortu zituen, eta hiru, berriz, Gabi de la Mazak. Azken talde horiek biek akordioa sinatu zuten aurretik, Udalbatza, Udal Gobernua, Udal Lan Batzordeak eta Uribe Kostako Mankomunitateko orde-



Bere bigarren legealdiari ekin dio Etxebarriak.

karitza arautu eta partekatze, baina programa-hitzarmen barik, agiri horrek ez zituen bultzatu elkarri konfiantza emateko beste. ◀

Hiri eta landa ondasun higiezinaren errolda, ikusgai

Aurtengo hiri eta landa ondasun higiezinaren katastroko errolda eskuragarri egongo da, udaletxean interes duenarentzat. Arduradunek jakinarazi duenez, errolda hilaren 24ra arte egongo da eskuragarri udaletxean. Hala, hura kontsultatu gura duenak Urizar auzoan dagoen eraikinerari hurbiltzea besterik ez du.

Erreklamazioak egiteko

Aipatutako erroldak kontsulta ditzakete interesa duten auzotar denek. Era berean, erreklamaziorik egin gura izanez gero, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza sailera jo beharko dutela jakinarazi dute udal ardura-dunek. ◀

info+: www.lemoiz.eu

Ikasturte amaierako jaialdia eta erakustaldia, hilaren 19an

Uda ate joka dugu, eta horregaz batera heldu da ikasturtearen amaiera. Hori horrela, Gorlizko ikastetxean, kurtso amaierako jaialdia egingo dute hilaren 19an, barikuan. Hala, arrastiko 04:00etatik 07:30era herriko neska-mutilek gozatu ahal izango dute puzgarriakaz, tailerrakaz, ginkanagaz eta beste hainbat jardueragaz.

Era berean, udalerriko kiroldegian ikastaroetan ibili diren ikasleek egun berean erakutsiko dute ikasturtean ikasitako guztia, arrastiko 07:00etan, frontoian. Hala, bertaratzen direnek gozatu ahal izango dute gym-jazz, zumba eta saloi-dantzarako ikasleen abileziakaz. ◀

info+: www.gorliz.eu

SARTU GURE
WEB BERRIAN
www.cianoplan.es
902 103 763

kartelgintza



inprimategia



kopisteria



cianoplan
DIGITAL PRINTERS



Ttipi-ttapa

IRATXE
MARTA LINARES
AEK-ko irakaslea

Eskualde bat, hizkuntza bat, baina...

Orain dela hamabost bat egun Uribe Kostan hurrengo lau urteotan gure herriak gobernaturiko dituztenak aukeratu ziren bozka bidez. HIRUKAN ikusi ahal izan genuen, gure eskualdeak kolore bakarra hartuko zuela hurrengo lau urteetarako, kolore berdea, hain justu.

Pasa den asteburuan udal gobernuak osatu dira, eta sorpresa hartu dugu udalerrri batean kolore berde hori aldatu delako. Gure eskualdea hamar udalerriz osatuta dago, azken hauteskundearen arabera, horietako bederatzitan kolore berde iluna edukiko dugu, batean, ordea, berde argia. Baina kolore bera izango da, berdea. Hizkuntza ere bera da, euskara.

Hauteskundeak igarota, udal gobernuak osatuta, lan egiteko ordua heldu da. Herritarroi lan hori zelangoa nahi dugun esateko garaia heldu zaigu: nik neuk lan bateratua nahi dut, hizkuntza bera daukagulako eskualdeko herri guztietan. Lanean hasiberri diren udal gobernu guztiei euskara era bateratuan tratatzeko eskaera helarazi nahi diet. Elkar ditzagun kolore berde argia eta iluna, eta Uribe Kostako euskarari tarteko orlegia ezarriko diogu.

Horretarako, eskualdeko udalerrri guztietan beka sistema bakarra ezarri behar da, doakotasunaren biderantza; euskara guztiona delako, doakoa behar du.

Euskalgintzan gabiltzan guztiok ere erarik bateratuenean egin behar dugu aurrera, eta eskualdeko hainbat herritan topa ditzakegun ereduak erreparatu. Udalek inplikazio handiagoa erakutsi behar dute euskalduntze eta sustatze kanpainetan, herritarroi euskararen beharra azpimarratu behar digute. Erabilera handitzea ere guztion arazoa da, eta aldi berean, ardura.

Hortaz, oraindik ere badugu nahikoa lan eskualde EUSKAHALDUNA lortzeko. ◀

Uribe Kosta



Biztanleen araberako ordezkari-kopurua du udalerrri bakoitzak.

Mankomunitatea osatzeke oraindik

Eskualdeko udalbatzak osatu ostean, Uribe Kostako Mankomunitaterako ordezkariak aukeratu behar dituzte.

Maiatzaren 24ko udal hauteskundearen ostean, Uribe Kostako udal guztietako udalbatzak osatu, eta tokiko alkateak aukeratu zituzten, joan den hilaren 13an, zapatua. Bada, tokiko gobernuak eratuta daude daborduko; hala ere, eskualdean oraindik osatzeko dago erakunde bat: Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatea. Erakunde horretako jarduneko presidentea Anabel Landak jakinarazi duenez, udal bakoitzak bere ordezkariak aukeratu behar ditu Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko batzorde bakoitzean parte hartzeko. Ondoren, aukeraturako kide horietatik guztietatik aukeratu beharko dituzte presi-

dentea eta presidenteordea; «aurreko legealdian urrian osatu genuen Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatea; hala ere, espero dugu aurten irailera egin ahal izatea».

Ordezkarikopurua, herriz herri

Udalerriko bakoitzeko biztanleen arabera da udal bakoitzak dituen ordezkarien kopurua, hala: Barrikak eta Lemoizek ordezkari bakarra dute; Urdulizek eta Plentziak bina, eta Beranok, Gorlizek eta Sopelak hiruna.

Landak azaldu duenez, beharrezkoak diren ordezkari guztiak aukeratu arte, Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak aurreko legealdiko kideak jarraituko du aurrera. ◀

Enpresek emakumeak kontratatzeke laguntza mantendu dute

Uribe Kostako Mankomunitateko Berdintasun Sailak, Uribe Kostako Behargintzak eta Urdulizko Udalak 2014an abiatutako «Berriro bueltan» izeneko programari jarraipena eman diote. Ekimen horren helburua da enpresei laguntza ematea, langabezian dauden 35 urtetik gorako emakumeak kontrata ditzaten. Erakundeek azpimarratu dutenez, «emakumeek zenbait profil izan dezakete, bai trebakuntza arlokoak, bai lan-esperientziari dagozkionak, jarduera-sektore ugarian». Uribe Kosta eskualde osoko enpresak, Urdulizkoak bereziki, dira programaren onuradunak.

Pizgarriak

Emakumeen laneratzea erraztea da programaren azken asmoa, eta pizgarri ekonomikoak eskaintzen dizkiete enpresei horretarako. Kontratuen iraupena eta kontratuetako modalitatea kontuan hartuta, 1.500 euro artekoa izan daiteke laguntza, kontratu bakoitzeko. Iaz, enpresen esku jarri zuten programa Uribe Kostako Mankomunitateko Berdintasun Sailak, Uribe Kostako Behargintzak eta Urdulizko Udalak. Emakumeen laneratzea sustatzeko proiektu globalago baten barruan zegoen egitasmo hori. Emakume ekintzaileei euren kabuz lanpostuak sortzen ere laguntzen zien, diruz zein enpresa sortzeko tutoretza eta prestakuntza eskainiz. Ardatz biei esker, azken hilabeteotan enpleguagaz lotutako zenbait gai jorratu da emakume-talde bategaz. ◀

info+: urkobe.net / 946 760 638

Urduliz

«Urdulizen alde», zinegotzi denakaz egingo du lan Bilbaok

Javier Bilbao Urdulizko alkate izendatu zuen pasa den zapatuan Udalbatzak. EAJk lortutako gehiengo osoari esker, Bilbaok eroso eskuratu zuen aginte-makila. Jelkideak zazpi boto batu zituen. Teodoro Antuñano Denok Batera-ko zinegotziak, berriz, bere buruari eman zion botoa. EH Bilduko 3 hautetsietatik 2 abstenitu ziren; bestea ezin izan zen udal bilkuran egon.

Bilbaok konfiantza eskertu zien gainerako zinegotzietan, eta «Urdulizen alde lan egiteko bada», bere taldea «zazpikoa barik hamaika zinegotzikoa izango» dela agindu zuen. Izan ere, bai Antuñanok, bai Dabid Zuazuak



EAJk 2011n baino bi zinegotzi gehiago ditu.

gehiengo osoaren erabilpen txarrik ez egiteko eskatu zioten. Biak agertu ziren EAJgaz «kolaboratzeko prest», «herritarren alde jarduteko». ◀

Ur-andela berri batek hornituko ditu urduliztarren etxeak

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak 1,1 milioi euro bideratuko du Urdulizen ur-biltegi berri bat jartzeko. Lanak 2017an hasiko dira, eta hurrengo urtean amaitzea aurreikusi dute. Ur Partzuergoko batzar nagusiak horrela agindu du onartutako *Hornikuntza eta saneamenduko azpiegituratara-ko inbertsio-programa*-n: «Urdulizen, biztanleriaren nahiz probintzia-ekipamendu berrien hazkundera dela-eta, udalerria hornitzeko biltegi erregulartzailea izatea gomendatzen da. Edukiera 6.000 m³-koa izango da, eta 144 metroko kotan jarriko da, sistemak gehienez onartzen duena». ◀



Daborduko ikastetxea altxatzen dabilta Mvuleni herrian (Tanzania). © BORN TO LEARN

Born to Learn jai solidarioa

Ekainak 20, zapatua

Sopelako udaletxe aurreko plaza.

11:00 Artisautza-azoka ireki.

12:00 Eriz magoa.

13:30 *Music boxes* antzezlan, Pompom antzerki-taldeagaz.

15:00 Paella-jana. Txartelak, 5 euroan.

16:30 Mus txapelketa. Izen- ematea: 5 euro bikoteko.

19:00 Perkusio afrikarra.

20:00 Katxarismos taldearen kontzertua. *Maneras de Vivir*, *La Polla* eta bestelako rock-taldeen bertsoak egiten dituzte.

21:30 Jaimarto Dramas-en metal baladak.

22:30 Bingo solidarioa.

23:00 Capitan Groove taldearen kontzertua. Funky bertsoak egiten dituzte.

01:00 Oihanlariak! Egitasmo horren atzean daude Gorka Suaia eta KimoSoundz. Saio indartsua dakarte, Dub, reggae, dancehall edota raggajungle estiloez josita.

Bazkarirako txartelak: 619 216 177

Ikastetxea behar dute

Born to Learn ekimenak egun osoko jai solidarioa antolatu du ekainaren 20rako, Sopelan, Tanzanian umeentzako ikastetxea eraikitzeko dirua lortzeko asmoz.

Tanzaniako Mvuleni herrian, Kilimanjaro eskualdean, eskolara joateko aukerarik ez daukaten umeentzako ikastetxea eraikitzen dabil Born to Learn egitasmoa. Hala, ekainaren 20rako, zapatua, jai solidarioa antolatu dute Sopelako udaletxe aurreko plazan, ikastetxea altxatzen laguntzeko dirua batzeko. Jaialdia goizeko 11:00etan hasiko da, eta goizaldeko ordu biak arte

iraungo du, gutxi gorabehera. Jarduera asko egongo dira, umeentzat zein helduentzat, eta batuko den diru dena zuzen-zuzenean joango da Tanzania-ra, Born to Learn ekimeneko kideek ziurtatu dutenez. Besteak beste, elkartasuneko paella-jana egongo da, 5 euroren truke. Bestalde, gonbidatutako artistek ez dute kobratuko.

Born to Learn egitasmoa 2011ko urtarrilean ipini zuten martxan Asier

Urrutikoetxea galdakoztarrak eta Sam Peñalver madrildarrak. Tanzanian zeudela, bertako ume askok eskolara joateko aukerarik ez zeukatela konturatu zirenean. Urte batzuk daroatzate umei heziketa ematen. Baina, «kontua da ikastetxe ofiziala izateko derri gorrezkoa dela eraikin propioa edukitzea», Urrutikoetxeak berak azaldu duenez. «Eraikinik ez daukatenez, gure ikasleak ezin dira Tanzaniako azterketara nazionaletara aurkeztu», gaineratu du Galdakaokoak.

Iaz ere egin zuten jaialdi solidarioa Sopelan. Izan ere, ikastetxe propioa altxatzeko asmoa ez da berria.

Crowdfunding kanpaina martxan jarri, eta akre biko orube bat aurkitu zuten, 3.500 euroan. Denen artean, dirua batu eta lurra erosi zituzten. Daborduko, ikastetxea eraikitzen dabilta, baina Urrutikoetxeak aitortu duenez, «dirua edukita, berehala altxatuko genuke». Lanak ondo joatekotan, abenduan aldatu gura dituzte ikasleak eraikin berrira. Gaur egun, sukaldari bat, lau irakasle eta 70 neska-mutil dauzkate proiektuan, eta beste 40 ume, bertako eskola publiko eta pribatuetan, babesleen bitartez. Karibu izeneko ostatua ere badaukate bertan, Born to Learn finantzatzeko. ◀

ArgiHizkiakaz jolastuz, Plentziako institutuan

ArgiHizkiak literatura-lehiaketaren berri eduki zutenean, eurek ere sariketa antolatzea erabaki zuten Plentziako Uribe Kosta institutuko lagunek. Ikasleek argazki baten gaineko testu laburra aurkeztea zen helburua. Bertako arduradunek azaldu dutenez, «oso handia izan da Batxilergoko neska-mutilen parte-hartzea»; institutuko arduradunek pozarren aitortu dutenez, «espero genuena baino askoz handiagoa».

Ehun ikasle ingururen idatziak batu dituzte; horietatik denetatik, bik jaso dute 30 euroko saria: Irati Alonso Anasagastik eta Monica Arriola



Alonso eta Arriola. © URIBE KOSTA BHI

O'Flynnnek. Ikastetxeko Normalizazio Ikasle Batzordeak antolatu du Plentziako Uribe Kosta institutuko lehiaketa, eta Euskara mintegiko irakasleek osatu dute, berriz, epaimahaia. ◀

Andoni Egañak eta Fredi Paiak abestuko dute Balkoitik Balkoira bertso-ikuskizunean

Erainaren 19an, barikua, Balkoitik Balkoira bertso-ikuskizunaren 17. edizioa egingo dute Algortako Portu Zaharrean. Algortako Bertsolari Eskolak antolatuta, oraingo honetan, Andoni Egañak eta Fredi Paiak kantatuko dute. Ohi den legez, ekitaldia Etxetxu plazan izango da, 22:00etan, doan. Balkoitik Balkoira bertso-modalitate ikusgarrian, parte hartzen duten bertsolari biek balkoi banatik botatzen dituzte bertsoak, 1802an Tolosan hasi zen tradizioa berpizteko asmoz. Algortan, San Nikolas plazan egin zen lehenengo aldiz. ◀

Leioa bisitatuko du berriro Francesco Tonuccik, *Umeen Hiria* ideiarene sortzaileak

Erainaren 25etik 28ra egingo dute UmHerri15 izeneko jardunaldi irekia eta hiru eguneko formakuntza ikastaroa, Leioako Herri Laborategiak antolatuta. Ekimeanean, besteak beste, Francesco Tonuccik pentsalari italiarrak parte hartuko du. Tonuccik asmatu zuen 1991ean *Umeen Hiria* kontzeptua. Umeen autonomia indartu behar diren tesiari eusten dio berak: «umeek hirien gobernuan parte hartu ahal dute ideiak eta eskakizunak adieraziz, eta helduen gehiegikeriak salatuz». ◀

info+: www.herrilaborategia.org


hirukagenda

Uribe Kostako asfekaria

2015eko ekainaren 18tik ekainaren 24ra arte



hiruka.eus



BILBO

Hautetsontziak eraikiz, etorkizuna erabakitzeke

Ekainaren 8an urtebete, Iruñea eta Durango artean giza katea eginez, erabakitzeke eskubidea aldarrikatu zutela ehunaka euskal herritarrek. Baina, Gure Esku Dago «ez zen jai aldarrikapenean gelditzeke, erabakitzea posible egiteko baizik», ekimeneko arduradunek adierazi dutenez. Hala, bide bat diseinatu dute, eta hiru pauso garrantzitsu ditu: hautetsont-

tzia, galdera eta erabakitzea. Hainbat hilabete daroztate lehen urrats hori lantzen; ezberdinen borondatea jasotzen duten oihalak ehuntzen, alegia. Orain, ekainaren 21ean, domeka, «Euskal Herriaren borondatearen hautetsontzia» eraikiko dute bost hirurutan.

Bilbon izango da Bizkaiko ekitaldi nagusia. Goizean, oihal soka egin-

go dute itsasadarren ertzean, Euskalduna zubitik Areatzako zubiraino. Urribekostarrekin 11:30etik 12:30era daukate hitzordua Uribitarre ibilbidean, Zubizuri eta udaletxeke zubien artean. Arrastian, San Mames berria futbol-zelaia leporaino bete gura du Gure Esku Dago-k, 16:30etik aurrera. Jauzi kualitatibo eta kuantitatibo handi bat egin gura dute.



San Juan suak

Ekainak 23, martitzena, iluntzean

BARRIKA

Plazan:

21:30 Txokolatada herrikoia.
22:00 San Juan suaren inguruko ikuskizuna, Deabru Beltzak taldeagaz.
*Ekainaren 24ra arte luzatuko dira sanjuanak.

BERANGO

Lantzarre zelaian:

19:00 *Buaila* haur-dantaldia, eta txokolatada.
20:00 San Juan sua, *Ixoripan*-a eta sagardoa.
20:30 DJ Xaibor.

ERANDIO

Astrabuduko Madaripe zelaian, Ta Orain Zer elkarrean ekimenez:

18:00 Umeentzako tailerrak, musika eta txosna, Madaripe zelaian.

22:30 San Juan dantza eta sua.

Altzagako kiroldegaren ondoan, Erandioko Dendari Taldeak antolatuta:

22:00 San Juan sua, eta txokolatada.

GETXO

Algortako San Nikolas plazan, herriko hainbat elkarrek antolatuta:

17:00 Bakoitzak erango du sutara zer botako duen, San Nikolas plazara.

17:00 Aurpegia margozea.

17:30 Dantza, Ibas Argia-ko lagunek gidatua.

18:30 *Parkean Olgetan*, ume eta gurasoentzako jolasak.

19:30 Txalaparta-emanaldia, eta bertsolari gazteen agurrak.

20:30 Txokolatada eta munduko postreak.

21:00 Gorrondatxe abesbatzagaz kantu herrikoiak.

GORLIZ

Eremitari Bidean, Aratz dantza-taldeak antolatuta:

22:00 Txokolatea eta *queimada*.

Gaminiz auzoan, Gaminiz Bizirik auzo elkarrek antolatuta:

16:00 Umeentzako puzgarriak.

18:30 *Piratak* umeentzako antzerkia, Begira taldeagaz.

20:00 Txistorra eta txokolate merienda.

21:00 San Juan sua, trikiti-doinuakaz.

LEIOA

Udaletxe ondoan:

23:15 San Juan sua isiotuko dute.

00:00 Su artifizialen ikuskizuna, Zaragozana pirotekniagaz.

Txosna-gunean:

22:30 Dantzaldia, Garriak 26 taldeagaz.

00:00 San Juan gaueko akelarrea; ondoren, dantzaldiaren jarraipena.

*Ekainaren 24ra arte luzatuko dira sanjuanak.

PLENTZIA

Legarondon, Jai Bartzordeak antolatuta:

19:00 Hasieta, bokatak eta txokolate-jana.

20:00 Kontu-kontari San Juan gaia.

21:00 Suari ondoetortia, edabe magikoagaz dantzara.

Linterna eta moxorroa erotan.

SOPELA

18:30 Zintzoren ametsa antzezlan, Jauregizar plazan.

20:15 Txokolate-jana, Udaletxe aurreko plazan.

Ipuin-kontalaria, euskaraz, Gobelan


Ipuinaren Orduaren aurtengo denboraldiari amaiiera emateko, hilaren 18an, eguena, *Marilurrek 5.722.630 ipuin da-kizki* istorioa eskainiko du Ana Meabek, Gobelako haur-liburutegian, Itzabal-tzeta/Romon. Saioa 18:00etan hasiko da, euskaraz; sarrera doan. ◀

Lorcaren antzezlan, oholtza gainera

Ekainaren 18an, eguena, *La casa de Bernarda Alba* antzezlan eskainiko du Gorlizko Antzerki Talde Amateurrak. Saioa 20:00etan izango da, Urdulizko kultur etxean, gaztelaniaz, eta sarre-ra, doan. Federico Garcia Lorca idatzi zuen antzezlan hori, 1936an. ◀

Kolonbiako egoera, berbagai barikuan

Colombia. Basta de terrorismo de es-tado goiburu, hilaren 19an, barikua, berbaldia eskainiko du Jorge Freyter errefuxiatu politiko kolonbiarrak Sope-lan. Hitzordua arrastiko 07:00etan ipini du Meñakoz elkarteak, Kurtzio kultur etxean. Gaztelaniaz izango da. ◀



Kale-antzerkia bueltan da Getxon

Eusko Jaurlaritzak sustatutako «Kale antzerkia bultzatuz» egitasmoari jarraipena emango diote Getxo udalerrian, Poxpolo ta konpainia taldearen *Poxpolotakonpainia.com* euskarazko antzeztanagaz. Esketxez, magiaz, abestiez eta jolasez beteriko ikus-kizuna plazazaratuko dute. ◀

Noiz: Ekainak 19, barikua
Ordua: 20:00
Non: Zubilleta auzoko plaza, Algortia
Sarrera: Doan

Zure ekitaldiren bat hemen ikusi nahi baduzu, bi aukera dituzu:

1 Bidali informazioa helbide elektronikoa honetara: hiruka@hiruka.eus

2 www.hiruka.eus atarian Komunitateko kide egin eta zuk zeuk sartu ahalko duzu ekitaldia Agenda atalean.

22:30 **oan arte** Soaren inguruan dantzari.

20:30 Parrillada.

22:00 Sua, edabe magikoa eta *jam session*-a.

21:00 *Patas* arriba zirkua, malabarista eta su ikuskizuna, udalexe aurreko plazan.

22:00 Sua isiotu, udalexe aurrean.

2015/06/18 - 19:00

Gimnasia erritmiko, ballet eta karate erakustaldia
 Urko kiroldegia | Sopela
 Sarrera doan.

2015/06/18 - 19:45

Miren Agur Meabe idazleagaz berbaldia
 Algortako kultur etxea | Getxo
Un ojo de cristal liburua. Gaztelaniaz. Doan.

2015/06/19 - 09:00

Bisita gidatua burdin hesira
 Urko kiroldegiko parkinga | Sopela
 Izena eman beharra da: 944 065 519 edo turismo@sopela.eu. Prezioa: 3,00 euro.

2015/06/19 - 18:00

Kirol ikastaroen erakustaldia
 Pilotalekua | Gorliz
 Sarrera doan.

2015/06/19 - 19:00

Kurdistan, territorio libre berbaldia

Kurtzio kultur etxea | Sopela
 Meñakoz kultur elkarteak antolatuta. Newroz elkarteak Juan Sorinek egingo du berba. Gaztelaniaz. Sarrera doan.

2015/06/19 - 22:00

Balkoitik Balkoira bertso-saioa

Etetxu plaza (Portu Zaharra) | Getxo
 ALBEren ekimenez. Fredi Paia eta An doni Eganak abestuko dute. Sarrera doan.

2015/06/20 - 11:00-20:00

Guardia Zibilaren kuartelaren gaineko galdeketa

Txiki-Otaegi (San Nikolas) plaza | Getxo
 Algortatik hanka in dar errepresiboen kontrako mugimenduak antolatuta. Parte-hartzea libre.

2015/06/20 - 11:00etik aurrera

Born to Learn jai solidarioa

Udalexe ondoko plaza | Sopela
 Besteak beste, herri-bazkaria (paella) egongo da, 5 euroan. Tzanzan eskola eraikitzeke erabiliko da batutako dirua. Bazkarian izena emateko: bltz@hotmail.com / 619 216 177

2015/06/20 - 11:00-15:00

Bigarren Eskuko Azoka Udalexe ondoko parkinga | Barrika
 Uribe Kostako Zeibitzu Mankomunitateak sustatuta. Trukerako aukera ere egongo da.

2015/06/20 - 18:00

Gitarra jaialdia Ibarreta (Aratz) | Gorliz
 Traste taldeagaz. Sarrera doan.

2015/06/20 - 19:00

Malefica filma
 Berango Antzokia | Berango
 7 urteik gorakoentzat. Gaztelaniaz. Sarrera doan.

2015/06/20 - 22:00

Salamandras eta Urban taldeen kontzertua

Josu Murueta plaza | Erandio
 Musikaren Europako Eguna ospatzeko. Doan.

2015/06/21 - 08:00

Argazki-irteera Cabarceno natur parkera

Astrabuduko taxi-getokia | Erandio
 Astrabuduko Fotoclub taldeagaz. Informazio gehiago: 696 758 354

2015/06/21 - 18:00

Pancho, el perro millonario
 adin denentzako filma

Berango Antzokia | Berango
 Gaztelaniaz. Sarrera doan.

2015/06/21 - 18:00

Getxotzar Abesbatzen Eguna

Bihotz Alai plaza | Getxo
 Udalerriko koruen emanaldia. Sarrera doan.

2015/06/22 - 18:30

Ikasturte amaierako entzunaldia

Berango Antzokia | Berango
 Musika eskolako ikasleekin. Sarrera doan.

2015/06/23 - 19:30-21:00

Argazkilaritza ikastaroa: kritika eraikitzailea

Astrabuduko Fotoclub | Erandio
 Informazio gehiago: 696 758 354



Zabalera

**JOSEBA
SANTXO URIARTE**
Filologoa, idazlea, ikertzailea

Ez daukat saltzeko euri jendea


Ezegunen arteko hizketagai erabiliarena edo da egualdia. Baita gure artean ere. Gehienetan, eguzkiaren aldeko gorazarreak euriaren kalteko destainekin batera etorri ohi dira igogailuetako hautu-mautuetan. Gehienak ernegaturik bide daude gure euri setatiaren presentzia hutsarekin.

Gehienok eguzkia maite dugu. Baina askok, antza, egunero, orduero, minutuero nahi lukete eguzki beroa, eguzki argia, eguzki lehorra. Euria berriz... «ez balego, hobe!» botako dizu albo-lagunak betondo beltzeko, euri-tanta batzuk nabaritu eta euri-takoa zabaltzeaz bat.

Gehienak, beraz, euri gogai-karriaren aurka. Eta gehienak diot, nik kasuon salbuespenen multzoan sartzen baitut neure burua. Areago, bertoko sirimiriak irribarrea lorarazten dit. Euri-zaparradek begiak dizdizka ipintzen dizkidate. Eta goian-behean botatzen duenean, ur-tanta lodiek kili-kili egiten didate gogobihotzetan.

Euria maite dut, bai, eta ez naiz errudun sentitzen, esker oneko baino. Zenbat sargori-egun itogarri freskatu dituen arrastiko euri langarrak! Zenbat landare zimel antzo zardaitu goizaldeko ihintzak! Zenbat zelai laru muskertu hodeien pozezko negarrak! Gure iturburuek polpolka esker-tzen dute euri eskuzabalaren al-dizkako dohaintza. Baita nik ere. Lagun ditut hodeiak. Konplize behelainoa. Jostailu txingorra eta potxingoak, eta begientzako ukendu lantzean behineko elurtza zuria. Izan ere, ez daukat saltzeko gure bazter ederrak milaka urtetan zehar laztandu eta biziberritu dituen euri jende zoragarria.

Ea zuoi ere, ttantta batzuk botatzen dituen hurrengoan irribarrea ezpaineratzen zaizuen, inguruko purrustaden leungarri eta urrearen balioa duen euri leialaren omenez. ◀



Anusorn Charoensuk argazkilari tailandiarren Voyages irudia egongo da ikusgai. © GETXOPHOTO

Getxophotok bidaien mundua irudikatuko du

Irailaren 3an zabalduko dute jaialdiaren bederatzigarren edizioa, eta hilabetez egongo da argazkiez gozatzeko aukera. Ohi den legez, tailerrak, aurkezpenak, gidatutako bisitak eta beste hainbat ekitaldi eskainiko dituzte.

Begihandi elkarteak aurkeztu du daborduko irailaren 3an abiatuko duen Getxophoto jaialdia. Bederatzigarren edizioko ardatz nagusia *Bidaiak* izango da. Hirugarren eta azken urtez, Christian Caujolle ospe handiko kritikari frantsesa izango da jaialdiaren komi-

sarioa. Horrenbestez, urriaren 4ra arte egongo da argazki erraldoiak udalerriko hamaika leku publikotan ikusteko aukera. «Artea eta eguneroko bizitza uztartzeko» apustua egin dute beti Begihandikoek. Hala ere, Getxophoton horren ohikoak ez diren formatuak ere erabiltzen dituzte: edontzi-azpikoak,

erakusleihoak, olana erraldoiak, kolatutako papera, Internet... Baina, argazkien erakusketa baino askoz gehiago eskainiko du Getxophotok. Bestek beste, tailerrak, aurkezpenak, gidatutako bisitak, proiektzioak eta *Argazkien Gaua* edo *Itxialdia* goiburupeko ekimenak ere egongo dira. Antolatzaileen berbetan, nazioarte mailako argazkilariak parte hartzen badute ere, «herri izaera» dauka jaialdiak, tartean daudelako bertoko merkatariak, ostalariak, zaleak... ◀

 info+: www.getxophoto.com

Abesbatzen eta dantza-eskolen egunak, Getxon

Getxoko Dantza Eguna izeneko ekimenak bertako eskola eta akademiako 200 bat ikasle batuko ditu ekainaren 19tik 21era, Algortako Bihotz Alai plazan, Kultur Etxeak jakinarazi duenez. Dantza-erakustaldi zabala eskainiko dute horiek denek; besteak beste, koreografia garaikideak, klasikoak, neoklasikoak eta dantza flamenkoa egongo dira ikusgai. Hala, barikuan, Dantzarte igoko da agertokira, 20:00etan. Zapatuan, oster, emanaldi bi egongo dira: bata, 18:00etan, eta bestea, 20:30ean, Carmen Veraren eta Ana Lararen dantza eskolen ekimenez, hurrenez hurren. Amaitzeko, domekan, Areetako Fla-

menko Eskolako kideek dantzatuko dute, 12:00etan.

Bestalde, domekan bertan, arrastian, VIII. Getxoztar Abesbatzen Eguna ospatuko dute Algortako Bihotz Alai plazan, 18:00etatik aurrera, eta sarrera, doan. Kultur Etxeak azaldu duenez, bertoko abesbatzei omenaldia egiten diete ekimenaren bidez, musika korala zabaltzeko egiten duten ahaleginagatik. Aurten, abesbatza hauek hartuko dute parte: Biotz Alai, Areetxo, Tangorako Soinutarrak, Kimetz, Itxartu, Gorrondatxe, Eskuz-Esku, Ondarreta, Gizatiar, Erromoko Kantariak, Zozoak, Andres Isasi Musika Eskolako abesbatza eta Irutasun. ◀

Salamandras eta Urban musika-taldeek joko dute zapatuan Astrabudian

Musikaren Europako Eguna ospatzeko, zapatuan, hilak 20, Salamandras eta Urban taldeek kontzertua eskainiko dute, Astrabuduko Josu Murueta plazan. Emanaldia 22:00etan izango da, eta sarrera, doan. Aipatutako Erandioko auzoan sortu dira banda biak. Salamandras rock and roll boskoteak kontzertu-ibilbide luzea eduki du, eta, besteak beste, Loquilloren eta Travelling Brothers leioaztarren hasierako gonbidatuak ere izan dira. Urban taldeari dagokionez, etengabeko bila-kaeran dauden pop-rock kantuek eta melodia berriak jotzen dituzte. Musika melodikoa, erromantikoa, nostalgikoa... egiten dute. ◀

«Kanadara jo behar du nazioarteko zirku batean ibili gura duenak»

Illari Delgado Gonzalez

artista astrabuduarrak zirku-eskola irekiak ematen ditu ikasturtean Altzaga ikastolako gimnasioan.

KEPA UGARTE MARTIARENA ▶

Illari Delgadok sortutako Cirque Peig, Idartist eta Lastima Teatroko taldeen ekimenez, irailaren 14ra arte zabalik egongo da eszena-artearen ikastaroan izena emateko epea. Guztientzat zuzendutako ikastaroa da, euskaraz zein gaztelaniaz; eskolak ingelesez ere jasotzeko aukera badago.

Noiztik darozue eszena-artearen ikastaroa ematen Altzagan?

Irailean beteko da hirugarren urtea, Erandioko Altzaga ikastolako gimnasioan eszena-artearen ikastaroa egiten hasi ginenetik. Bi ikasturteotan, neu ibili naiz eskolak ematen. Baina, kurso honetan Lastima Teatro taldeko ki-deakaz bat egin dut, egiten duten lana gustuko dut eta. Gainera, denboraz estu ibili naiz ni azkenaldian, espektakulu bategaz bira egiten nabilelako, eta kanpora joan behar izaten dudalako batzuetan.

Zelan bururatu zitzaizuen Altzagako ikastolan egitea?

Nik Altzagan bertan ikasi nuen. Egun batean, zuzendariari zuzenean galdetu nion ea bertan zirku-ikastaroak egin genitzakeen. Ikasle garaian, artearekin lotutako hainbat kontu egin nituen ikastolan: ikuskizun bi egin nituen gurasoen elkartegaz, eta azken urtean, DBHko 4. mailan, ikuskizun bat egitea proposatu nien, ikasketa-bidaiaren harira. Zirku-eskolak ematea



Illari Delgado 12 urteaz hasi zen, bere kabuz, zirkuaren teknikak ikasten. © ILLARI DELGADO

bururatu zitzaidanean, nire aita ere ez zen atzean gelditu. Garabiakaz eta igeltsu-lanetan ibili izan da, eta, berak lagunduta, begiratzen ibili ginen gimnasioko sabaian aireko akrobaziak egiteko zer edo zer jar zitezkeen. Baita lortu ere! Zuzendariaren eta Jaurlaritzaren oniritziak jaso genituen. Lurreko akrobaziak egiteko, bertan ditugu koltxonetak, *minitramp*-a eta gainerakoak.

Zer ikasiko du ikastaroan izena ematen duenak?

Batetik, ondo abesten ikasteko da kantatu tailerra. Gorputz-adierazpeneko eskolei dagokienez, agertoki gainean nola egon behar duten ikasiko dute parte-hartzaileek. Eta horien bien osagarria da antzerkia. Baina garrantzitsuena ez da kantatzen ondo jakitea eta eszenatoki gainean egoten jakitea; interpretatzea da inportanteena. Az-

kenik, zirkuak da ikastaroaren muina. Gainera, gai denak jorratu ahal izate-

“Bartzelonan eta Madrilen eskola bana dago, baina maila eskasa daukate”

ko prestatu ditugu ordutegiak: martitzen eta eguenetan, zirkuaren arteak eta kantua; eta astelehen, eguazten eta zapatuetan, antzerkia eta dantza.

Adin zehatzik ez da behar, ezta?

Inondik inora ere ez! 10 urtetik 35 urtera bitarteko ikasleak eduki ditugu, amaitu berri den ikasturtean. Bestalde, orduka banatu ditugu martitzen eta eguenetan egin ohi ditugun

akrobaziak. Lehenengo orduan hasiberrien txanda izaten da, eta bigarrenan, trebeagoak direnena. Hala ere, ikasleei proba egiten diegu aurretik, zein taldetan kokatu jakiteko.

Ingelesa ere erabiltzen duzue.

Material didaktikoa banatzen diet ikasleei. Kontua da ingelesez edo frantsesez daudela zirkuaren inguruko tutoretza-liburu gehienak. Egun batean maila profesionalen lan egiten badute, ariketak ulertu beharko dituzte.

Zer egin behar du nazioarteko zirku batean sartu gura duenak?

Frantziara edo Kanadara jo behar dute nazioarteko zirku batean sartu gura dutenek. Madrilen eta Bartzelonan egon badaude eskolak, baina maila eskasa daukate. ◀

info+: www.idartist.es



Ummm...

AMAIA NEREKAN UMARAN
Emak-Umea eta Pertson-Ona

Laburrak luzerako ematen duenean...

Bi mezu jaso nituen oso denbora gutxian. Mikrofilmetik bat, Plentziako film laburren jaialdiko epaimahaikide izateko eskaria eginez. Hirukatik bestea, kolaboratzaile izateko. Erantzuna baiezkoa bietan. Gakoa: luzeera. Lehenengo kasuan laburrak soilik onartzen dira. Bigarrenean, ordea, hona galdera: zein nahiago, zutabe luzea ala laburra? SMS bat 160 karaktere, tuit bat 140, zutabe honek 625. Jakina da, tamainak badu bere garrantzia. Bestela, galde diezaiotela Zapatar! Mezu laburrak modan dauden garaian, kontu handiz ibili beharra dago espazio apur horretan esaten denarekin. Maiz, laburrak luzerako ematen baitu... ◀

hiruka

Uribe Kostako astekaria

Zure taberna, jatetxea edota komertzioa
hemen agertzea gura baduzu
ipini zaitez gugaz harremanetan:

944 911 337
publi@hiruka.eus

www.hiruka.eus



«*ELA inoiz ez da izan EAJren sindikatua*»

German Kortabarria Igartua (Oñati, 1949) ELA sindikatuko arduradun ohiak liburu batean jaso ditu langile-erakunde horren lehen lerroan egindako urte denetan bizi izandakoak. Algortartutako oñatiarrak *Gauzak horrela (ere) izan ziren. ELA (1976-2006)* izenburua jarri dio Pamiela argitaletxeagaz plazaratutako lanari. Besteak beste, ELAren barne-prozesuaz, ETAren esku-hartzeen eraginez, Gernikako ekitaldiaz, Lizarra-Garaziz, Loiolako prozesuaz eta Ibarretxe planaz egiten du berba Kortabarriak.



KEPA UGARTE MARTIARENA

«**Gauzak horrela (ere) izan ziren**» diozu izenburuan. Horrela izan ziren, horrela ikusi nituen, horrela bizi izan genituen... Hori kontatu dut liburuan. Alde batetik, objektiboa izaten saiatu naiz, egitateak ahalik eta zuzenen jasotzen; beti ere, nik ezagutu ditudan neurrian. Baina memoriak datuen galbahetik ere igaro egin behar du; bestela, izugarritzko amarruak egiten dizkizu.

Zer helburu dauka idatzi duzun liburua?

Belaunaldi baten deskargua eta testigantza da, beste gauza batzuen artean. Nahiz eta mugarrira 1976an jarri, 60ko hamarkadan hasten da liburua berez. Gaur eguneko ELAren bizkarrezurra garai hartan sortu zen, klandestinitatean zegoen talde txiki batetik. 1973 eta 1974 artean, Manu Robles-Arangiz ELAren enbor tradizionalari atxiki zitzaion talde hori. Eta 1976ko hirugarren kongresuan, talde horrek erakunde historikoaren ardura hartu, eta nolabait eraldatu zuen. Horregatik esaten dugu hirugarren kongresuan birstortu zela ELA; besteak beste, erakunde sozialistatzat definitzen du bere burua, eta egitura nazionalaren alde egiten du.

EAJren sindikatua izatea leporatu diote askok ELAri. Hori horrela da?

Askotan entzun izan dut hori, Bizkaian gehienbat. Denboran oso hedatuta egon da EAJren sindikatua zela ELA. Liburuan azaltzen da gertatu dena: ez zen inoiz EAJkoa izan 60ko hamarkadan osatu zen tal-

de hori. Taldeak hirugarren kongresuan hartu zuen ELAren zuzendaritza, eta erakundearen ardatza izan zen.

Zeintzuk izan ziren ELAren lehenengo pausoak?

Biziraupena bermatzea zen hasierako lehentasuna. Erakunde txikia ginen gu. Trantsizio Garaian geundela, ez genekien zein izango zen joko-zelaia, zeintzuk izango ziren arauak... Kanpora begira, behintzat, instituzionalizazioa izan zen gure helburu nagusietako bat. 1979an EAEko Autonomia Estatu-

“ **Objektiboa izaten saiatu naiz, egitateak ahalik eta zuzenen jasotzen, beti ere nik ezagutu ditudan neurrian** ”

tuaren alde egin genuen, abiapuntua hori izan zitekeela pentsatuz. Hasieratik onartu genuen eskumen urriak zituela guri zegozkigun alorretan, arlo sozialean eta lan-harremanetan. Hala ere, uste genuen gure instituzioek eta erakundeok bultzada emanaz gero, gai izango ginela gurean lan-harremanen esparru bat finkatzeko. Esaterako, Lan Harremanen Kontseilua, PRECO deritzan lan-gatazkek bideratze-

ko akordioa, eta Heziketa Iraunkorraren hitzarmena gauzatu ziren. Lan-esparru propioa osatu nahi genuen...

Hala ere, kontuak ez ziren espero legeaz atera.

Azken muturreraino eraman genuen apustu hori. Baina, azkenean, errealitatea ez da izaten zuk nahi bezalakoa. Alde batetik, laster hasi zen hozten marko hori eratzeko konpromiso politikoa: 80ko hamarkadaren erdialdean EAJk izan zuen zatiketaren ondorioz, alderdi sozialista sartu zen Ajuria Enean. Jose Antonio Ardanza jarri zuten lehendakari, eta indarreko legedia aplikatzen hasi ziren. Negoziazio kolektiboari zegokionez, zentralizazioa ahalbidetzeko eginda zeuden legeak. Guk behartuta aurkitu genuen geure burua ondorioak ateratzera.

Zer ondorio atera zenituzten?

Interesen arabera erabiltzen ziren indarreko lege laboralak. Horretaz gain, alde batetik, Estatutuaren eskumen ugari transferitu gabe zeuden oraindik; eta transferitutako asko Madrilera berreskuratu egiten zuten nahi zuenean, oinarritzko legeen bitartez. Beste alde batetik, Auzitegi Konstituzionala ere hor zegoen beti interpretazio zentralistak egiteko. Gure premiei erantzuna emateko, marko horrek ez zuen balio. ELArentzat hilda zegoen Estatutua. Hortik etorri zen 1997ko urriaren 18an Gernikan egindako ekitaldia, eta beste erakunde batzuek bat egin zuten. LAB sindikatuaz gain, EAJ, HB eta EA alderdi politikoetako



Sinopsia

Ezustekoa eman du azken urteetako ELAk: sindikatu neurritsuaren jokabide oldarkorrek, erakunde estatutu-zalearen indarreko markoaren ukoak, edota solaskidetza instituzionaletik kontraboterearen lubakietara egindako jauziak harritu egin ditu ELA ondo ezagutzen zutela uste zutenak ere. Itxuraldaketa hori gidatu duen logika azaltzen digu ELAren ibilbidea barrutik bizi izan duen German Kortabarriak.

ELAren barne-prozesuaz gain, tarte zabala hartzen dute liburuan beste gai askok, berbarako LABekiko harremanak, gobernu eta alderdiekin izandako gorabeherak, ETAren esku-hartzeen eraginak, Gernikako ekitaldiak, Lizarra-Garazik, Loiolako prozesuak, eta Ibarretxe planak. Kontuak «ahalik eta zintzoen» jasotzen saiatu dela dio egileak, «datuen makuluetan bermatuz memoriaren zalantza eta amarruak».

ELAren ibilbidearen eta, zeharka bada ere, une politiko garrantzitsuen lekukotasuna duzu, bada, liburu hau.

buruzagiak ere bertan egon ziren; baita Ezker Batua eta Elkarriko kideak ere.

Beraz, LABenganako hurbilketa lehenago hasi zen.

Apurka-apurka, ELA beste modu batean hasi zen bere burua kokatzen euskal gizartearen; fiskalitatearen gaiari jarraipena egiten hasi ginen, baita diskriminazio-kontuei garrantzia ematen ere. Hau da, pixkanaka eredu sozialaren gaia bereganatzen doa ELA. Eta sindikatua aldarazi egiten du horrek guztiak. Ildo berean, gure konpromiso politikoan sakontzen joango gara.

Gu beti konpondu izan ginen gaizki UGT eta CCOOekin, baina, azkenean, haiekin egiten genuen egin beharrekoa. LAB sindikatua bere ibilbidea egiten eta sendotzen joan zen heinean, ordea, eurekin aritzeko aukerak aztertzen hasi ginen. Gutxienez, elkarri aurpegira begiratzen hasi ginen. Gure arteko hasierako mugarria izan zen lan-harremanen euskal esparruaren aldeko manifestazioa (1994ko otsailaren 20a, Bilbo), liburu honen azalaren zatirik garrantzitsuena hartzen duena.

Idatzitako liburuan gorabehera askoko garaia izan zela diozu...

Oso urte gogorrak izan ziren. ETAk gure afiliatuak hiltzen zituenean, LABek ez zuen txintik ere esaten. Ertzaintzak zer edo zer egiten zuenean, berriz, gure adierazpenetan epelkeriaz jokatzeko ari ginela esaten zuten LABek. Baina, urte horietan, guk argi ikus-

ten genuen Ajuria Enearen estrategia antiterroristak ezin zuela hasitako bidea baldintzatu. Azken muturreraino iritsi nahi genuen, zer emaitza lortu genitzakeen ikusteko. LABek ere apustu hori egin nahi zuela uste genuen. Eta horrela joan zen bi sindikatuen arteko harremana mamitzen, zailtasunak zailtasun.

Zein izan zen ELAren zeregina Lizarra-Garazin?

Egoera itxaropentsua bizi genuen 1998an, eta orduantxe etorri zen Irlandar Foroa, eta, ondoren, Lizarra-Garaziko akordioa. ELArentzat mugarri garrantzitsua izan zen azken hori, gatazkak konponbide politikoa behar zuela, eta hori herriari hitza emanez egin behar zela uste genuen indar ezberdinak batu ginelako. Ajuria Eneako ituna arrakalatzeko lagundu genuen guk, batzuk EAJren sherpa-lanak egin genituela esan arren. Nire ustez, aukera bikain hori zapuztu arren, iruditeria kolektiboaren aldaketa eragin zuten Lizarra-Garazik; ikuspegi nazionala asko heda-

“ Gaur egun, sindikalgintzaren bigarren lerroan nago. Erakundeetan ardurak utziz gero, benetan utzi egin behar dira ”

tzitsua izan zen azken hori, gatazkak konponbide politikoa behar zuela, eta hori herriari hitza emanez egin behar zela uste genuen indar ezberdinak batu ginelako. Ajuria Eneako ituna arrakalatzeko lagundu genuen guk, batzuk EAJren sherpa-lanak egin genituela esan arren. Nire ustez, aukera bikain hori zapuztu arren, iruditeria kolektiboaren aldaketa eragin zuten Lizarra-Garazik; ikuspegi nazionala asko heda-

tu zen, eta askoz argiago azaldu zen; harreman berriak egin ziren... Gero, bukatu zen, bukatu zen moduan. Baina, nik uste dut aukera bat izan zela.

Noiz hasi ziren hondatzen LABekiko harremanak?

Lizarra-Garazin hasi zen hondatzen ELAren eta LABen arteko harremana. «Sukaldean» ez zegoela leporatzen zioten batzuk ELAri. Baina, guri ez zitzaigun interesatzen «sukaldean» egotea; LABekin «sukalde» sindikal bat osatu ahal izatea nahi genuen, baina LAB ez zegoen horretarako. Beste «sukaldean» egon eta beste «sukaldariei» laguntzea nahi zuen LAB sindikatuak.

ELAren jokabidean aldaketa eragin zuen horrek?

Ordutik, gu ez gara joan itsu-itsuan inoren estrategiaren atzetik. Hain zuzen ere, hori gertatu zen Loiolako prozesuan. Gu ez gara izango laguntzaile hutsak, konpartitzen ez dugun estrategia batean. Eta, nire ustez, alde batetik, horrek markatzen du LABekiko konpondu ezin hori. Edo, gutxienez, estrategia komun bat hitzartu ezin hori. Edonora goazela, ikusi behar dugu estrategia serioa dagoela.

Lehenengo lerroan ibilitako sindikalista bat jubilatzen egiten da guztiz?

Bai, noski. Urteak eman ditut horretan, baina bizitzak beste gauza batzuk baditu; bilobak zaintzea, nire kasuan. Erakunderen batean ardurak utziz gero, benetan utzi behar dira. ◀

Nazioarteko saskibaloia, Getxon ikusgai

Nazioarteko saskibaloia txapelketa hartuko du Faturak aste akabuan, 19 urte azpiko kategorian. Argentina, Dominikar Errepublika eta Espainia izango dira bisitariak.

Zapatuan eta domekan, 19 urte azpiko nazioarteko saskibaloia txapelketa jokatu da Algortan. Euskadiko, Espainiako, Argentinako eta Dominikar Errepublikako gizonen selekzioak nor baino nor ibiliko dira Faturako kiroldegian. Iurgi Caminos euskal selekzioaren entrenatzaileak Mikel Sainz de la Maza Askartza Claret taldeko aleroa deitu du partida horietarako.

Selekzioek Faturako partidak baliatuko dituzte hurrengo erronka prestatzeko: ekainaren 27tik uztailaren 5era Grezian egingo den kategoria ho-

rretako munduko saskibaloia txapelketa. Alvaro Gonzalez kirol zinegotziaren ustez, «19 urtetik beherako euskal selekzioa nazioarteko beste hiru talde gaz Getxon lehiatzea oso albiste ona da herriarentzat eta tokiko saskibaloiko taldeentzat, kategoria horretako jokalaririk onenak bertan ikusi eta ikasi ahal izango baitute»; eta Getxo Saskibaloia Taldearen laguntza eskertu du.

Basque Basket Tour

Algortako txapelketa 2015eko Basque Basket Tour izeneko ekimenaren barruan dago. Egitasmo hori Euskadi-



Euskal selekzioa animatzeko deia egin dute antolatzaileek. © GETXOKO UDALA

ko Saskibaloia Federazioak antolatu du, Eusko Jaurlaritzaren laguntzagaz. Arturo Aguado Euskadiko Saskibaloia Federazioaren presidentea adierazi duenez, Faturakoa «oso txapelketa garrantzitsua da, kalitate handikoa. Espero dugu jende asko honaino hurbiltzea, gazte promesak eskainiko duten saskibaloiko ikuskizunak merezi izango baitu». Javier Salgado gizonen euskal selekzioaren kapitainak, berriz, azpimarratu du «jokalarientzat udan euskal selekzioaren elastikoa eramatea ohorea eta plazera» dela, «gu guztiok batzea eta Euskadi ordez-

katzea gure lurraldean eta kanpoaldean. Maila horretako selekzioen aurka jokatu ahal izateak esfortzu handia dakar, eta aukera hori eskaintzea eskertzekoa da». 2015eko Basque Basket Tour programan, Euskadiko emakumezkoen senior selekzioak ere hartu du parte, Venezuelako selekzioaren aurka Gasteizen eta Tolosan jokaturako partidetan. Gizonen selekzioari dagokionez, abuztuaren 11tik 17ra Dominikar Errepublikara joango da, bertako eta Puerto Ricoko selekzioen aurka jokatzera, Mexikon egingo diren aurre-olinpiadak prestatzera. ◀

Hockeylari uribekostar bi olinpiadetara joatear



Rocio Ybarra nazioarteko 200. partida jokatu zuen pasa den egunean, Txinaren aurka. © FIH

Rocio Ybarra Solaun atzelari berangoztarra eta Maria Lopez de Eguilaz atezain getxoiztarra Valentzian dira egunotan Munduko Beldar Hockeyko Ligan lehiatzen. Jokalari biak Espainiako Selektioan dabilta, eta selekzioa finalerdietan sar dadin

behar dute, Rio de Janeiroko 2016ko Olinpiar Jokoetara joan ahal izateko. Ybarra selekzioaren kapitaina da, eta holandar HDM taldean jokatzen du. Bestalde, Jolasetako Cristina Zavala 16 urte azpiko Espainiako selekzioa deitu dute. ◀

Nesken Surf Biltzarra egingo dute zapatuan



Garazi Sanchez nagusitu zen iaz. © EHSURF

Pasa den astean itsas egoera kaxkarrak zela eta atzeratutako Nesken Surf Biltzarra zapatu honetan egingo dute, ohienez Bakion. Astekari hau ixteko orduan Euskal Herriko Surf Federazioak oraindino ez du zabaldu parte-hartzaileen zerrenda, baina eskualdeko hainbat surflari ezagun espero dira. Iaz, Garazi Sanchez getxoiztarra irabazi zuen Open kategoria. Sara Urresti sopeloztarrak, berriz, oso erakustaldi ikusgarria egin zuen, eta aldi berean nagusitu zen 16 eta 14 urte azpikoen kategorietan. ◀

Entrenatzeko lubanarroa dauka Arkotek



Lutxanak antzeko sistema erabiltzen du. © PTB

Arraunean egiteko teknika hobetzeko tresna berria dauka Arkote Arraun Taldeak: lubanarroa. Pasa den maiatzaren 30ean estreinatu zuten lubanarroa egoitzan, horrelako ekipamendua desiratzen denbora asko eman ostean. Aitortu dutenez, ia arraun-talde guztiek badaukate daborduko lehorrean arraunean egiteko horrelako bahuontziren bat. Txe-txu Laradogoitia klubeko sortzaileak bataiatu zuen Arkoteko kideek eurek egindako makina. Lubanarroak euri-tako ura darabil. ◀



Bizkaiko neska-mutilen selekzioaren entrenatzailea ere bada Kamiruaga.

«Umeek normal ikusten dute euskaraz egitea»

Jokin Kamiruaga Moreno bilbotarra entrenatzailea da Leioako Saskibaloitaldian. Magisteritzako azken urtean dabil, eta euskararen ardura du Bizkaiko Federazioan. 21 urte ditu, eta erreferente bat da saskibaloitaldian entseguak euskaraz ematen.

INIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ▶

Pasa den astean, «Pasa baloia euskarari» izenburuko mahai-ingurua antolatu zuten Faturan Getxoko Saskibaloitaldian, Egizuk eta Getxoko Udalak; entrenamenduak euskaraz egiteko motibazio eta baliabide gehiagoren bila. Jokin Kamiruaga izan zen hizlarietako bat.

Entrenamenduak euskaraz errazteko zein baliabide aipatu zenituen?

Mahai-inguruan, hiru pertsona elkar-tuginen, antzeko errealitatekoak, na-

hiz eta bakoitzak herri desberdin batean entrenatzen duen. Atera genuen ondorio nagusia da pertsona batek euskara sustatzeko helburua hartzen badu, bere esku dagoen dena egin dezakeela euskara bultzatzeko, nahiz eta euskalduna ez izan.

Zein teknika suertatu zaizkizu eraginkorrek entseguetan euskara sustatzeko?

Entrenatzailearen figura oso garrantzitsua da. Hasiera-hasieratik euskaraz badabil, gaur egungo neska-mutil gehienek, denek ez esatearren, normaltzat hartuko dute entrenatzaileak

euskaraz jardutea, eta haiek ere egingo dute, euskaraz baitakite.

Jokalariren batek egoera estutu eta eragin txarra izan dezake?

Kontuan hartu behar dugu testuingurua. Ikastola batean bagaude, argi dago ume denak euskaldunak direla, eta euskararekiko maitasuna errotuta izatea espero duzu. Arazoa izan daiteke ikastetxe edo herri ezberdinetako umeak etorri, entrenatzailea euskaraz hasi, eta umeek ohitura hori ez badute. Hor suerta daitezke arazoak, edo nork bere burua derrigortuta ikustea euskaraz egitera. Baina esan dudana le-

gez, eskolan ia ume guztiak euskaraz dabilta gaur egun Bizkaian. Normal ikusten dute euskaraz zein gaztelaniaz entrenatzea, hau da, ez dela derrigorrezko gauza bat euskaraz entrenatzea.

Uribe Kostan oraindino, A ereduak indar handia du, eta X eredu ere hor da. Horiek arazo izan daitezke?

Nik Leioan entrenatzen dut, eta hemen arazoak ematen ditu horrek. Badira ere B ereduak jarduten duten ikastetxe batzuk; gaztelania da haien lehenengo hizkuntza. Eta orain arte beti gaztelaniaz entrenatu izan badute, nahiko zaila izaten da 14 urteaz txip hori aldatzea. Gauza asko egin behar dira oraindik, eta hori da aldatu beharreko gauza bat. Gaztelaniara jotzea da errazena: toki desberdinetako elkartzu daitezke talde batean, gerta daiteke baten bat euskaraz trebea ez izatea. Hala, denontzat errazena badirudi erdarara jotzeak, nahiz eta taldekide gehienak euskaldunak izan. Hori da, nire ustez, Uribe Kostan eta Bizkaian dagoen arazo nagusia.

Entrenatzaileak baliabide bereziak behar ditu?

Gaur egun, 10 eta 25 urte bitarteko neska-mutil gehienak euskaldunak dira. Hortaz, eguneroko hizkeran, entrenatzailearen esku dago gazteak euskaraz egitea. Beste kontu bat dira hitz teknikoak. Berez, gaztelaniaz eza gutzen ditugu, baina saskibaloitaldian hizkuntza ingelesa da. Gaztelaniazko izenak normaltzat jotzen baditugu, gauza bera egin beharko genuke euskaraz. Hor lan handia dago. Egia da ETBk hainbat partida eskaintzen dituela euskaraz, teknikoki zein euskara aldetik maila onean. Hori oinarri moduan hartuta, aurrera egin behar da, eta telebistan entzuten dugun hizkera hori kantxara eramane eguneroko. ◀

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

guta izanez gero, etsera eroango dizugu egunkaria!!!

Algortako Etorbidea 78 - Tf. 94 491 27 34

Txakur Zerbitzua

Zu eta zure txakurak elkar alderi behar duzue!
Bera alderi eta berarekin komunikatzera bukatzen duzue.

LEHENENGO HITZORDUA DOANE!

Tú y tu perro tenéis derecho a entenderse!
Nosotros te enseñamos a comprenderle y a comunicarte con él.

¡PRIMERA CITA GRATIS!

serviciocanino@yahoo.es
tel. 688.687.073

KONTXI
ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztietan!!

Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93

Jarrai gaitzazu:

hirukaEus @hirukaEus

www.hiruka.eus

COMERCIAL de LIMPIEZA **VILLAR S.A.**

Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrialia
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezasvillar.com

Pala eta txapela, herriarenak



120 pilotarietatik 4 emakumeak izan dira.

Pasa den maiatzaren 4an abiatu zen Algortako San Nikolas Pala Txapelketa. Bertako bote bihurriko frontoiaz gozatze-ko prest izan dira 120 jokalaria. Antolakuntzagaz adostu dituzte jokalariek zer egun eta ordutan jokatu partidak. Horri esker, finalerdietara heldu dira, daborduko, lehenengo eta bigarren mailtako bikoteak.

Finala, ETBn

Kategoria nagusian, Gabik eta Arrolak jokatu dute Garate eta Fanoren aurka; Labajotarrek Uri eta Arkaitzen kontra izango dute partida. Bigarren Mailari dagokionez, Gorka eta Ander izango dira Jon eta Ibanen arerioak;

Iñakik eta Etxegiak, berriz, Jon eta Igotz izango dituzte aurrez aurre. Datozen orduotan, norgehiagoka horietan nagusituko diren bikoteek ohorea izango dute txapelketa herrikoien finala jokatzeko aste akabuan; zehazki, barikuan, hilak 19. Bigarren mailakoek 19:30ean jokatu dute, ohi legez San Nikolasen. Ondoren, 20:30ean, Lehenengo Mailako finalisten txanda izango da. Enaitz Betanzos antolakuntzako kideak iragarri duenez, finalak pantaila handi bitan jarraitu ahal izango dira erosoago. Halere, bertaraterik ez duenak aukera izango du zapatuan ETB4 telebista-katean ikusteko. Sari-emanaldiagaz eta lunch-afariagaz amaituko da txapelketa. ◀

Movillak Leioa utzi du, eta Barakaldon hasi da

David Movilla entrenatzaile itzurbaltzetarrak Barakaldoko klubagaz sinatu du. Bigarren B Mailako taldea zuzenduko du urtebetez. Movillak «pribilegiotzat» jo du Lasarren lan egin ahal izatea. Barakaldoko Zuzendaritzak play-offera heltzea jarri du helburutzat: aurten

lortutako 7. postutik puntu bira. Movillak erronka onartu du, baina ohartarazi die klubaren estruktura optimizatu eta hazi egin beharko duela, oinarri sozialean. Aurretik, Leioa Kirol Elkartea agurtu zuen itzurbaltzetarrak. 9 urteko ibilaldian, taldea Ohorezko Mailatik Bigarren Bra eroatea lortu du. ◀



David Movillak (ezkerrean) hunkituta esan zuen agur, Leioan bederatzita urte egin ostean. © LEIOA K. E.

Basque Teamek laguntza berriak iragarri ditu

Faduran egoitza duen Basque Team fundazioak 911.000 euro banatuko ditu beketan goi-mailako kirolari eta entrenatzaileen artean. Guztira, 59 kirolarik, 15 teknikarik eta eskubaloiko eta emakumezkoen belar-hockeyko talde banak jasoko dituzte diru-laguntzak. Kirolari horien artean badira Uribe Kostako batzuk, tartean Jon Carazo Raspas arraun-taldeko kidea, Bradley Linklater Getxo Rugby Taldeko Zeelanda Berriko jokalaria, eta Iker Martinez Abrako Errege Itsas Klubeko bela-kirolaria. Basque Teamek 120 eskaera jaso zituen. ◀

Skate-campusak egingo dituzte udan, Berangon

Berangoko UK Skatepark ekimenak astebeteko bost campus antolatu ditu udan skatez gozatze-ko. Interesatuek 150 euroko matrikula ordaindu beharko dute, eta, edozein kasutan, gutxienez bost urte izan beharko dituzte ikasleek. Lehenengo campusa ekainaren 22an hasiko da, eta azkena uztailaren 31n amaituko da. Orduetegiak goizeko 08:30etik 14:30era dira. Skate ikastaroa, hamaitakoa, atsedena, bideo-zuzenketak, ohe elastikoa eta grabaketak izango dituzte ikasleek tarte horretan. ◀

info+: ukskateparkberango@gmail.com / 638 034 417

Bizkerrek agur esan behar izan dio Euskal Kopari

Algortako Bizkerre taldea final-laurrekoetan jaitsi da Euskal Kopa irabazteko lehiatik. Joaneko partida galdu izanaren (1-3) zama eraman arren, zuri-urdinek erasora jo zuten zapatuan Athletic Bren aurka, Lezaman. Lehenengo zatian, zuri-gorriak kontrolpean izan ondoren, Olatz Riverak gola sartu zuen 45. minutuan. Bigarren zatian, bilbotarrek getxoztarren defentsa driblatu, lau tanto sartu, eta Euskal Koparen finalerako sailkatzea lortu zuten. Zapatuan jokatu dute Añorgaren kontra. ◀

Arenas eta Getxo igotzetik gertu dabilta jada

Ohorezko Mailako txapeldunordeen play-offa irabazi du Getxok, eta Hirugarren Mailara igotzea dagokio. Halere, itxaron beharko du lekua duen jakiteko. Izan ere, Portugalen, Arenas edo Gernika Bigarren B Mailara igotzea behar izango dute hori-beltzek. Arenasekoak, ostera, ondo baino hobeto moldatu ziren Al-mendralejon, 1-4ko emaitza izan zuten Extremaduraren aurka. Logroñesen kontra jokatu dute, azken fasean. Joaneko partida domekan izango da, 19:00etan Las Gaunasen. Arenasek autobus bi antolatuko ditu zaleentzat. ◀

saiazgetaria
HOTELA
Roke Deuna 25
Getaria
T. 943.140.143
www.siazgetaria.com



Egunero, 24 orduz
www.hiruka.eus

Zazpi ezberdintasunak



Sudokua

			8		5	7	2	
8		2						4
				9		5		
2			7			6	8	3
	7					4		
				6	1			
4	3	7		5				
		9		2	3			

Gogoan hartu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpi-lauki bakoitzean.

Soluzioak



5	4	3	8	7	9	1	2	6
7	9	1	3	4	2	6	8	5
2	6	8	9	2	1	5	7	4
9	7	2	1	2	7	9	3	4
1	5	1	6	5	8	4	3	7
3	8	3	7	6	3	8	2	4
8	3	6	8	9	4	7	5	1
1	8	5	1	4	2	3	6	7
4	3	4	8	1	7	6	5	2
6	2	7	5	3	8	4	9	1

Horoskopoa



Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Udaberri honetako azken egunak dituzu aurretik. Ondo baino hobeto erabil egizuz, ez dituzu berriro izango eta!



Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Daborduko, argazki-kamera horrek gorrotatzen zaituelakoan zaude. Ez da posible desfokuratzeari, zu agertzen zaren bakoitzean.



Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Guztiok gura dugu sute handia 23an, baina liburuak erretzea ez zaizu gogorregi egiten? Oparitu, eta beste bizitza bat izango dute.



Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Gustatuko litzazigukeen arren, gauza batzuk ez dira betirako izaten. Gelditzen dena gozatu, eta ondoren, gogoan hartu, baina aurrera jo.



Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Uda hurbiltzen doa, eta oraindino gauza asko duzu prestatzeko. Bakarrik ezin baduzu, eskatu laguntza, horretarako baitira lagunak.



Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Eguzkia hiru egun jarraian ikusteko premia bizia duzu. Horrela segituz gero, albino bihurtuko zara!



Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

San Juan bezperako suak ez du aspaldi zeukan xarma. Gaur egun telebista, akuarioa edo garbigailua dituzu begiratzeko.



Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Gutxien espero duzunean, egundoko ezustekoa emango dizute! Ez esan gero ez dizugula horren berri eman!



Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Energia eta pentsamendu txarrak erretzeko ei da udako solstizioaren sua, baina amaginarrebaren oparia botatzeko ere bai.



Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Oraindino hartzeke duzue kafe hori. Ez itxaron berak deitu arte, «gero» esaten duenak «bego» esaten baitu. Deituzue zuk.




Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

Baga, biga, higa, laga, boga, sega, zai, zoi, bele, harma, tiro, pun! Xirristi-mirristi, gerrena plat, olio zopa, kikili salda, urrup edan edo...



Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Mentalki etxe osoa miatu duzu, behin eta berriro. Fisikoki ere bai. Tiradera, armairu eta apaletan ez bada, non dago bainu-jantzia?



Portu Zaharra



Begoña Salazar Romo
(Altsasu, 1959)

Altsasuarra bada ere, orain dela 19 urte etorri zen bizitzen Algortako Portu Zaharrera. Bere sorterriko argazkiak batzen hasi zen hasiera batean, baina azken bost urteotan, Algortako eta Portu Zaharreko argazkiak biltzen ibili da, bertoko bizimoduaren historiak jasotzen dituzten liburuak egiteko.

Portu Zaharreko XX. mendeko ehunaka argazki batu ditu Begoña Salazar altsasuarrak. Eskuz, 45 liburu egin ditu horiekaz guztiakaz, eta hilaren 22tik 28ra bitartean erakusgai ipiniko ditu Algortako Torrene Aretoan.

IKER RINCON MORENO ►

Gure herriko iragana gogora ekartzeko, zer hobe garaiko argazkiak baino? Horixe pentsatu zuen Begoña Salazar nafarrak. Altsasu bere sorterriko ehunaka argazki eta testu biltzen hasi zen, orain dela hamar urte. Aspaldiko bizimodu irudikatzen zuten jasotako irudiek: iraganeko gizartea eta bertako jendea, besteak beste. Batutako argazkiakaz, gainera, Salazarrek hainbat liburu egin zituen eskuz, herriaren iragana jasota uzteko asmoz. 2009an aurkeztu zituen bere sorterrian oinarritutako lehenengo lanak; argazkiz betetako 30 liburu egin zituen guztira. Denbora aurrera joan ahala, Salazarren bilduma handitzen joan da, eta aitortzen du 250 liburu baino gehiago egin dituela daborduko.

Altsasuarra orain dela 19 urte etorri zen Portu Zaharrera bizitzera, eta kostaldeko auzo horretako iraganeko bizimoduaren historia berreskuratzen ibili da azkenengo bost urteotan. Etex etxe joan da horretarako, eta argazki originalak eskatu izan dizkie auzotarrei. «Hasiera batean, ez zen batere erraza ar-


gazki horiek lortzea; jendea ez zegoen prest liburu hauetan agertzeko, beldurratik edo lotsagatik», azaltzen du nafarrak. Hala ere, bildutako lehenengo argazkiakaz erakusketa bat egin ostean, jendea konfiantza hartzen hasi zen, «bat-batean, mundu guztiak nahi zuen parte hartu». Hala, Algortako Portu Zaharreko iragan mendeko irudiak batu ditu Salazarrek, baita bilduma handi bat sortu ere, horiek erakusteko asmoagaz. Argazkiek data zehatzik ez dutela aitortzen du nafarrak; bildumetan ikus daitekeenez, XX. mendearen hasierako batzuk egon badaude. Hala ere, XX. mendearen erdialde inguru-koak dira argazki gehienak.

Hasiera batean, folklorea erakusteko materiala

“Jendeak pozik hartzen ditu garaiko argazkiak; ezagunak topatzen ditu, familia, lagunak... jendea elkartzeko modua da”

biltzen hasi zen; aurrera joan ahala, baina, herriko ospakizunak, ezkontzak, ohiturak, familia eta lagun arteko erretratuak eta eskoletako argazkiak bildu ditu, besteak bete.

Fotografia horiekaz batera, garaiko egunkari-zatiak sartu ditu Salazarrek liburuetan, «XX. mendeko gizartea eta kultura hobeto ulertzeko». Lehenengo liburuetan, gainera, hainbat testu idatzi zituen; hala ere, jendearen jarrera ikusita, testuak alde batera uztea erabaki du: «konturatu nintzen jendeak testuez



oroituz

paso egiten zuela eta argazkiak bakarrik begiraten zituela. Liburuak hartu eta azkar-azkar begiraten ditu jendeak, argazkiei bakarrik erreparatuta. Hala, argazkiak bakarrik jarri ditut oraingo liburuetan; niretzat hobe, argazkiak fotokopiatu, jarri eta listo!».

Portu Zaharreko argazkien 45 liburu

Portu Zaharreko ia etxe guztietako atea jo ostean, Bego Salazarrek 45 liburu osatu ditu lortutako argazki guztiakaz; «Portu Zaharreko argazki zahar guztiak bildu ditut dagoeneko», dio nafarrak. Hori dela-eta, Algortako bestelako inguruetakoko argazki zaharrak batzen hasi da orain, barbarako Basagoiti, Torrene eta Villamontekoak, besteak beste.

Salazarrek azaldu du guztira 250 liburu egin dituela Portu Zaharreko eta Altsasuko argazkiakaz, eta 50 argazki daudela liburu bakoitzean. Aitortu duenez, Algortako hainbat dendatan (esaterako, Zabalala eta Torrene kaleen arteko zapata-dendan) aurki daitezke horietako liburu asko, nahi duenak ikus ditzan; «etxean ez dut horrenbesteko lekurik, liburu horiek guztiak gordetzeko. Dendek baimena eman zidaten, eta bertan utzi ditut liburuak», azaltzen du.

Erakusketa, ekainaren 22tik 28ra

Portu Zaharrean oinarritutako 45 liburuak ikusgai egongo dira Algortako Torrene Aretoan, hilaren 22tik 28ra bitartean. Izan ere, Salazarrek bere bildumak aurkeztu gura dizkio herriari, argazkiak begiraten dituzten bitartean jendea horien inguruan biltzeko helburuagaz. «Jendeak oso pozik hartzen ditu garai-ko argazki guztiak; ezagunak topatzen ditu, familia, lagunak... herriko jendea elkartzeko modu bat da»,

azaltzen du nafarrak. Aspaldiko oroitzapenak burura ekartzeko egundoko aukera eskaintzen dute aspaldiko argazkiek. Salazarrek dioenez, askotan esan diote argazkiakaz batera, horietan agertzen direnen izen-abizenak zehaztu beharko lituzkeela; hala ere, bere iritziz, «politena da jendeak apurka-apurka nor den nor ikustea». ◀





Mundukatuak

Nahia Rodriguez Urdanpileta algortarra

«Helsinki errespetu handiagoa diote elkarri»

Nahia Rodriguez 2012ko urrian heldu zen Suomira (Finlandia). «Beste herrialde batean bizi» gura zuen, eta «pribilegio» hori izan zuen; «lanagatik alde egin behar izan dutenek», berriz, ez dute pribilegio hori. Horregatik, «borondatezko emigrante europar zurtzat» du bere burua. Helsinkira jo aurretik, Turkun bizi izan zen, Suomiko hiririk zaharrenean. Oro har, hiriak gustatu ez arren, Finlandiakoak «nahiko txikiak» direnez, ez zitzaion «hain traumatikoa» egin. Gainera, basoa eta itsasoa «ondoan» ditu, eta «naturarenganako errespetua handia da oso». Halere, «kontraste bortitza eta exotikoa» eskaini dio naturak, negu luze eta gogorren eta uda labur baina argitsuaren artean.

Jana eta edana

Bertako gastronomian esneki, haragi eta arrain asko dago. Basoko fruitue-

kin egindako zukua, perretxikoak eta patatak klasikoak dira. Aipagarria da eguneroko ogia, garagar beltz-beltzez egin. Ostera, globalizazioaren ondorioz, «ia edozer» topa daiteke dendetan: «nire etxe alboko merkatu zaha-

«Festa normatiboa eta garestia da Helsinki, hiri handi kapitalista guztietan legez»

rrean, Idiazabal gazta saltzen duen emakume erdi-euskalduna ezagutzen dut», azaldu du Nahia Rodriguezek. Bestalde, bidezko merkataritza modan dago, eta tokiko eta garaiko produktuak erosten ahalegintzen da jendea. Barazkijaleek eta veganoek ia edozein jatetxetan jan dezakete; eta horiek ez ezik, mota denetako «per-

tsona helduak esneagaz jaten ikustea oso normala da». Kafea, edari energetikoak eta alkoholdunak ere asko edaten dira: «arazo handia da» alkohola.

Gaztetxe barik

Helsinki, «hiri handi kapitalista denetan legez, normatiboa eta garestia da festa». Musika zuzenean entzuteko tabernak eta giro alternatiboa gurago ditu algortarrak, baina orain dela pare bat hil suntsitu zuten azken gaztetxea, Mummola (amamatxo): «Euskal Herriko martxa herrikoi hori hemen ez dago». Harreman pertsonaletan, berriz, hotzagoak eman arren, «elkarrir errespetu handiagoa diote, besteen ideiei, itxurari eta izaerari errespetu handiago diete. Horrek benetan liluratu nau», dio Rodriguezek. Arkitektura sobietarra, Helsinki ondoko basoak, Kallio auzo ezkertiarra, eta Seurasari irla ezagutzea gomendatzen du. ◀

NOR DA

Nongoa

Algortakoa

Adina

27 urte

Zertan dabil

«Bizitzen: batzuetan lanean, beti ikasten».

Ikasketak

Erizaintza (Leioan) eta Herialde Nordikoen Genero, Kultura eta Politika (Helsinki). Genero-in darkeriaren gaineko masterra egiten dabil orain.

Noiz arte Helsinkin?

«Agian bihar arte, agian hurrengo hamarkadara arte, baina betiko ez dut uste».

NON DAGO



Herrialdea

Suomi

Azalera

338.424 km²

Hiria

Helsinki

Biztanleak

624.000

Hizkuntzak

Finlandiera da bertako hizkuntza. Ofiziala da, mendeetan kultur menperatzaile izan zen suedieragaz batera. Halere, %91,51k hitz egiten du finlandieraz, eta %5,49k, suedieraz. Samiera babestuta dago hizkuntza gutxitu bezala, Laponia lurraldean. Guztira, 20.000 hitzun daude Norwegian, Suedian, Suomin eta Errusian; eta horietako 15.000 hitzunez ipar-samiera erabiltzen dute.

Dirua

Euroa. Finlandiar markoa zuten aurretik.

HIRUKA Koop. elk.

Helbidea: Martikoena 16, 2. 48991 GETXO
e-Posta: hiruka@hiruka.eus P.-Ku.: 171
Telefonoa: 944 911 337
Erredakzio-burua: Irantzu Sagarminaga
Erredakzioa: Iker Rincon, Kepa Ugarte, Iñigo Fernandez de Martikorena, Zuberoa Iturburu
Testuen orrazketa: Iratze Ormatza

Argazkiak:

Hodei Torres
Diseinua: Jorje Perez eta Eñaut Etxebarri
Publizitatea: Erika Martinez / Ninbe Landa
Kudeaketa: Ziortza Merino
Filmazioa eta Inprimategia: BEPSA
Lege Gordailua: BI-2022-2014
ISSN: 2386-98-95 CC-BY-SA
Ale-kopurua: 8.000 ale



Erakunde laguntzaileak:

